

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

APROBETXATZEN AL DA ESKOLA-LIBURUTEGIAK HEZKUNTZA BERRIKUNTZAN DUEN POTENZIALITASUNA?

BABELIA LIBURUTEGI-MEDIATEKAREN DIAGNOSIA ETA
HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Egilea: Lide Aizpurua Bakedano

Zuzendaria: Maite Serna Martinez

Leioan, 2018(e)ko irailaren 10ean

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	1
LABURPENA	3
1. SARRERA	4
2. AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA	5
2.1. XXI. mendeko eskola eta hezkuntza berrikuntza.....	5
2.2. Hezkuntza berrikuntza eta eskola-liburutegia.....	7
2.3. Eskola-liburutegi berritzailearen egungo egoera.....	10
3. HELBURU ETA HIPOTESIAK	12
4. METODOA, LAGINA ETA PROZESUA	12
4.1. Ikerketa-metodoa.....	12
4.2. Datu bilketarako tresnak.....	13
4.2.1. Behaketa-fitxa.....	13
4.2.2. Galdetegia.....	14
4.3. Lagina.....	14
4.4. Prozesua.....	15
4.4.1. Hutsuneen hautematea eta ikerketaren diseinua.....	15
4.4.2. Ikerketa burutzea eta datu-bilketarako tresnen aplikatzea.....	16
4.4.3. Datuen estatistika azterketa.....	16
5. EMAITZAK	17
5.1. Liburutegiaren azpiegitura, ekipamendua eta instalazioak.....	17
5.2. Eskola-komunitateak liburutegiaren erabilgarritasun eta eraginkortasunaren inguruan duen kontzientzia.....	18
a. <i>Liburutegiaren existentziaren ezagupena</i>	18
b. <i>Presentzia eskolako txosten, aurrekontu eta bilera garrantzitsuenetan</i>	18
d. <i>Elkarlana eta koordinazioa</i>	19
e. <i>Liburuzainaren lana eta liburutegiko zerbitzuak</i>	20
f. <i>Eskola-liburutegiaren erabilera</i>	20
g. <i>Eskola-liburutegiaren eraginkortasuna</i>	22
6. ONDORIOAK	23
6.1. Ikerketa gaiaren eta helburuaren inguruko ondorioak.....	23
6.2. Eztabaida.....	24
6.3. Hobekuntza proposamena.....	24

6.4.	Ikerketaren mugak eta bide berriak	26
7.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	27
8.	ERANSKINAK	30
8.1.	Behaketa-fitxa.....	30
8.2.	Zuzendaritza-taldearentzat galdetegia	32
8.3.	Liburuzainarentzat galdetegia.....	33
8.4.	Irakasleentzat galdetegia.....	35
8.5.	Ikasleentzat galdetegia.....	37
8.6.	Haur hezkuntzako ikasleentzat galdetegia.....	38
8.7.	Galdetegietako erantzunen balioak.....	39
8.8.	Ikerketako dimentsioak galderei lotua.....	39

APROBETXATZEN AL DA ESKOLA-LIBURUTEGIAK HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO DUEN POTENTZIALTASUNA?

BABELIA LIBURUTEGI-MEDIATEKAREN DIAGNOSIA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

Lide Aizpurua Bakedano
Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU)

Laburpena

Aprobetxatzen al da eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntzarako duen potentzialtasuna? Galdera hori du ardatz lan honek. Izan ere, bada XXI. mendeko Informazio-gizarteak eta hezkuntzak ezartzen dituen erronketara egokitzen den eskola-liburutegia. Hala ere, askotan ez da hezkuntza berrikuntzarako gakoa izan daitekeen baliabide hau ustiatzen; izan borondate faltagatik edo izan ezjakintasunagatik. Gaia hobeto ulertzeko xedearekin, Ikasketa-Zerbitzua deritzon proposamen pedagogikoaren baitan, eskola-liburutegi errealean detektatu den arazo bati irtenbidea ere eman nahi izan diogu. Horretarako, lehenik Zarauzko Orokieta eskolako liburutegiaren ebaluazio edo diagnosia egin dugu. Bertako errealtatea ezagutzeko, liburutegiaren egoera fisikoa zein eskola-komunitateko partaideen iritziak jaso ditugu. Azterketa horretan, alde batetik, hutsuneak identifikatu ahal izan ditugu. Bestetik, testuinguruak jarritako trabak gainditzeko aukerak ere badaudela ikusi dugu. Hori guztia baliatuta, hobekuntza proposamen bat luzatzen dugu.

Gako hitzak:

Eskola-liburutegia, hezkuntza berrikuntza, ebaluazioa, hobekuntza proposamena, Ikasketa-Zerbitzua

Resumen

¿Se aprovecha el potencial que tiene la biblioteca escolar para la innovación educativa? Esa ha sido la pregunta eje en este trabajo. Existe la biblioteca escolar que se adapta a los nuevos retos de la Sociedad de la Información y la educación del siglo XXI. No obstante, a menudo no se aprovecha su potencialidad como clave para la innovación educativa, sea por desconocimiento o por falta de voluntad. Con el fin de profundizar en el tema, y siguiendo el método del Servicio-Aprendizaje, hemos querido dar solución a un problema detectado en una biblioteca escolar real. Para ello, hemos realizado la evaluación o el diagnóstico de la biblioteca del centro Orokieta de Zarautz. Después de recoger información sobre su estado físico y la opinión de la comunidad escolar, hemos podido conocer su realidad. Por un lado, hemos identificado sus faltas mediante esa exploración. Por otro lado, hemos visto que también hay posibilidades de superar las trabas que establece el contexto. Para finalizar, hemos empleado toda esa información para hacer una propuesta de mejora para la biblioteca escolar investigada.

Palabras clave:

Biblioteca escolar, innovación educativa, evaluación, propuesta de mejora, Servicio-Aprendizaje

Abstract

Do we take the advantage of the potential School Libraries have in educational innovation? That is the main question of the following dissertation. In fact, there is a School Library that is adequate to the challenges that 21st century has. Nevertheless, usually its potential as key for educational innovation is not being fully realized at present, due to ignorance or to a lack of willingness and consciousness. In order to deepen the subject, and following the Service-Learning method, we have wanted to solve a problem detected in a real school library. To do this, we have carried out the evaluation or diagnosis of the library from the school called Orokieta, in Zarautz. After collecting information about its physical condition and the opinion of the school community, we have been able to know their reality. On the one hand, we have identified its lacks through that exploration. On the other hand, we have seen that there are also possibilities to overcome the obstacles that the context establishes. Finally, we have used all that information to make a proposal for improvements for the School Library we investigated.

Key words:

School Libraries, educational innovation, evaluation, proposal for improvements, Service-Learning

1. SARRERA

Teknologiaren eta informazioaren iraultzak, XXI. mendeko gizartearen esparru guztiak zipriztindu ditu, baita eskola bera ere. Hala, eskolan, konpetentzia zein erronka berriei egokitasunez ekiteko, hezkuntza berrikuntzaren premia suertatu da.

Berrikuntza horri bide ematen dion baliabidea da eskola-liburutegia, besteak beste, ikasleak Informazio-gizartean¹ egokiro bizitzeko presta ditzakelako, bizitzan zehar ikasteko eta ezagutza eskuratzeko aukerak eskaintzen baititu (Mirét eta Baró, 2016).

Hala ere, gehienetan ez da eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntzarako duen potentzialtasuna aprobetxatzen. Kasu batzuetan, lan horretarako borondatea dagoen arren, administrazioak ez du azpiegitura eta ekipamenduan laguntzen (Miret eta besteak, 2011). Aldiz, beste batzuetan, nahiz eta azpiegitura eta ekipamenduak badauden, eskola-komunitateak ez du horiek erabiltzeko borondaterik edo gaitasunik (Serna, 2015).

Lan honen helburu nagusia eskola-liburutegiek hezkuntza berrikuntzan duten potentzialtasuna defendatu eta errealitatean hori aprobetxatzen den ikertzea izan den arren, ikerlanak bat egiten du Ikasketa-Zerbitzua deritzon proposamen pedagogikoarekin ere. Izan ere, aldi berean, Gradu Amaierako Lan honen helburu akademikoa gure etorkizuneko praktika profesionalari ekarpen bat egitea izan da. Ekarpene hori gure inguru profesionalean detektatu den arazo bati irtenbide bat ematea da (Gezuraga, 2017). Hala, gure inguruko egoera bat aztertu eta hori hobetzeko konpromisoa hartu dugu gure ezagutza, jarrera eta baloreak erabilita (Zorrilla, Capella, Gil, 2016).

Kasu honetan, Zarauzko Orokieta Herri eskolako *Babelia* izeneko liburutegi-mediateka aztertu dugu, ondoren, detektatu ditugun hutsuneak betetzeko proposamen bat egiteko. Izan ere, eskola-liburutegi honen egoera (espazio fisiko eta ekipamendu aldetik) inguruko onenetakoa izanda ere, hutsuneak dituela aurreikusten genuen; eta hori, batez ere, eskola-komunitateak liburutegiaren erabilgarritasun eta eraginkortasunaren inguruan duen kontzientziario faltagatik dela susmatzen genuen. Hain zuzen ere, hori egiaztatzeko eta hori hobetzeko interesa izan ziren, funtsean, eskola-liburutegi hau ikerketa honetarako aztergai hautatzearen arrazoia.

Esan beharra dago, askotan uste izan dela eskola-liburutegiak bere kabuz ekartzen duela aldaketa eta berrikuntza. Egia da horretan lagun dezakeela, baina hori ez dago baliabideak izatearen menpe soilik; behar-beharrezkoa da komunitateak, eta irakasleek batez ere, eskola-liburutegia erabiltzeko borondatea izatea (Durbán, 2010).

¹ Informazio-gizartea: garapen sozialaren estadio bat da, bere partaideek (herritar, enpresa eta administrazio publikoak) nahi duten era, leku eta momentuan informazioa eskuratu eta partekatzeko duten gaitasunak ezaugarritzen duena.

2. AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

Ugariak dira hezkuntzak XXI. mendera egokitzen jakin ez duela defendatzen duten iritziak. Askoren ustez hezkuntza molde zaharkitua ez da gai mota honetako gizarte bateko biztanleek (gure kasuan, haurrek) dituzten beharrei erantzuteko.

Hala ere, asko izan dira molde zaharkitu hori atzean utzi eta hezkuntza berrikuntzaren alde egin dutenak ere. Ildo horretatik, eskola-liburutegiak ekarpen nabariak egin ditu berrikuntza beharri erantzuteko garaian. Hala ere, aurrera egin aurretik, koka gaitzen testuinguruan: zeintzuk dira egungo eskolaren erronkak? Non kokatzen da hezkuntza berrikuntzaren adibide den eskola-liburutegia? Zein da baliabide honen egungo egoera?

2.1. XXI. mendeko eskola eta hezkuntza berrikuntza

Argi dago iraultza teknologikoak irakasle on paper tradizionalen eragiten duela (Dorfsman, 2012), baina aldaketa metodologikoetan eta ikasle perfilean ere bai. Hori gutxi balitz, konpetentzia eta ikasteko era berriak sortu dira.

Alde batetik, Corinaren (2003) ikuspuntuarekin bat eginik, hezkuntzaren helburua subjektu burujabea, autonomoa, kritikoa eta argumentatzeko, pentsatzeko, sortzeko eta ikertzeko gai dena lortzea dela kontuan harturik, ezinbestekoa da eskolako lehen urtetatik ikertzen eta edukiak zalantzan jartzen irakastea.

El cuestionamiento -y los procesos que genera verificación de posibilidades y de argumentación- son actividades que están íntimamente ligadas a la educación y que tienen el objetivo de contribuir a la formación de un individuo con ideas propias, libre de dominación, y comprometido con la sociedad y con el avance de la ciencia. Haciendo así del educando un ser presente, crítico y consciente de la historia y la cultura de su país. (Corina, 2003:127)

Horrez gain, ikaslea besteekin lan egitera joaten da eskolara, irakaslea bultzatzaile eta orientatzailea duelarik, bidelaguna. Lan indibiduala eta kolektiboa ez dira bereizten; alderantziz elkarren menpekoak dira eta elkar aberasten dute (Corina, 2003). Ildo horretatik, ikerketak funtsezko papera betetzen du. Izan ere, ikasleak informazioa bilatzeko eta zalantzan jartzeko motibatzen ditugun heinean, inizatiba sustatzen eta pertsona sozial eta konprometituak sortzen laguntzen baitugu.

Gainera, gaur egun goragoko mailako ikasketetan ikasleak gai ezberdinen inguruan kuestionatzen, argumentatzen eta pentsatzen eta ulertzen jakitea eskatzen da. Hala ere, normalki ikasleek ez dakite hori egiten, eskola ibilbide osoan ez dutelako hori praktikan jartzeko aukerarik izan. Horregatik, oso garrantzitsua da lehen urtetatik ikertzen ikastea.

Bestalde, iraultza informazional eta teknologikoak beste erronka berri batzuk ere ekarri dizkigu hezkuntza sistemara. Izan ere, arestian esan bezala, kompetentzia berriak sortu dira. Horietako bat da Konpetentzia Informazionala (Cremades, Jiménez, 2015; Drubán, 2006; Durbán, García, 2008; Miret, Baró, 2016). Autore horien esanetan, honetan datza Konpetentzia Informazionala:

La habilidad de reconocer una necesidad de información y la capacidad de identificar, localizar, evaluar, organizar, comunicar y utilizar la información de manera efectiva tanto para la resolución de problemas como para el aprendizaje a lo largo de la vida. (Durbán, 2006:60)

Konpetentzia hau polifazetikoa dela esaten da (Durbán, 2006), alfabetizazio eta trebetasun desberdinak barne hartzen baititu, hala informazioarekin nola teknologiarekin zerikusia dutenak. Era berean, pentsamendu hausnartzaile eta kritikoaren eta prozesu kognitiboen autorregulazioaren garapenarekin erlazionatuta dago. Gaitasun horiek curriculum arlo guztietarako balio dute, bai orokorki eta bai zeharka.

Konpetentzia Informazionalak konplexutasun edo menderatze maila ezberdinak ditu, informazioaren erabilerarekin zerikusia dutenak, 1. taulan ikus dezakegun bezala. Hala, honen garapena progresiboki eta maila guztiak kontuan hartuta sustatzea komeni da, lehen eskola urtetatik hasita.

1. INFORMAZIOAREN BILAKETA ETA BERRESKURATzea	2. INFORMAZIOAREN ANALISIA ETA TRATAMENDUA	3. INFORMAZIOAREN KOMUNIKAZIOA ETA APLIKAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren beharra onartzea • Eskuragai dauden informazio baliabideak ulertzea • Informazioa lokalizatu eta berreskuratzea • Emaitzak eta bilaketa prozesua ebaluatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Hautatutako edukia esploratu, antolatu eta erregistratzea • Informazioa ezagutza pertsonalean bihurtzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabileran etikarekin eta ardurarekin jokatzeko • Emaitzak era egokian komunikatu eta aplikatzea

1. taula: Konpetentzia Informazionalaren konplexutasun edo menderatze mailak. Iturria: Durbán, 2006.

Gauza jakina da, gaur egungo haurrak teknologia digitalak erabiltzen jaiok diren arren, edukien erabileran eta horretarako pentsamendu kritikoa erabiltzen hutsune handiak dituztela (Durbán, 2010). Horregatik da hain garrantzitsua gure ikasleak informazioak dituen sarbide eta aukera anitzak erabiltzen hezteko, ondoren informazio hori ezagutza bihurtzen ikas dezaten.

Horrez gain, eta esan berri dugunarekin lotuta, Irakurketa Konpetentziak ere aldaketak jasan ditu. Orain irakurketa kontzeptu zabalagoa da, pentsamendu erreflexiboaren garapenarekin eta alfabetizazio digitalarekin estuki lotuta baitoa. Horrez gain, irakurketarako erak aldatu egin dira; Durbán eta García (2008) diotenarekin bat eginik, Informazio-gizartean hamaika bide baititugu irakurketara garamatzatenak, hamaika baita ere horiek eskaintzen dizkiguten aukerak eta, beraz, erabilerak ere bai: *la lectura puede ser así literaria o informativa, en formato textual*

o incluso en hipertexto, en secuencia no lineal y accesible indistintamente a través de soporte papel o digital (Durbán, García, 2008:58).

Irakurketarako Konpetentzia garatzeak haurrei ikaskuntzarako eta garapen pertsonal nahiz sozialerako lagunduko die; horregatik da oinarrizkoa eta beharrezkoa. Gainera, konpetentzia hau ere eskolako urte guzti-guztietan garatu beharrezkoa da; era global eta progresibo batean. Ikus dezakegun bezala, atal honetan aipatutako hiru puntu nagusiak (ikerketarako beharra, Konpetentzia Informazionalaren sorrera eta Irakurketa Konpetentziaren eraldaketa) eskolak gaur egungo gizartearen aurrean dituen oinarrizko erronkak dira; lehenbailehen erantzutea eskatzen dutenak, gainera. Hurrengo lerroetan azalduko dugu, beraz, berrikuntza behar honi erantzuteko eskola-liburutegiak zein aukera dituen.

2.2. Hezkuntza berrikuntza eta eskola-liburutegia

Hainbat adituren arabera, hezkuntza-berrikuntza ezinezkoa da eskola-liburutegi gabe (Baró, Cosials, 2003; Cremades, Jiménez, 2015; Durbán, 2010; Miret, Baró, 2016). Hots, horien iritziz, ezin dugu ikerketaz, irakaskuntzaz, ezagutzaz... hitz egin liburutegiaren ekarpenik gabe. Baró eta Cosialsek (2003) ematen duten definizioaren arabera, eskola-liburutegiak papereko dokumentu tradizionalaz gain, beste euskarri bateko dokumentuak eta sarean dagoen informaziora sarbidea ematen duen ekipamendua dituzten ikaskuntzarako baliabide zentroak dira.

Gai honetan aditu diren autore gehienek defendatzen dute XXI. mendera egokitzen diren eskola-liburutegien izaera hibrido hori. Azken finean, Durbánek (2010) esandakoarekin bat eginik, eskola-liburutegia, liburutegi zerbitzu bat baino, hezkuntza baliabide bat da. Liburutegi eredu irekiago eta dinamikoago bat da, mundu aldakor baten behar berriei adi dagoena (Mirét, Baró, 2016). Egun ezagun da eskola-liburutegia aurreko atalean aipatu ditugun erronka berri horiei lotuta doala: ikerketari, Konpetentzia Informazionalari eta irakurketa modu eraldatuari. Eskola-liburutegia berritzailea izango bada, ordea, ezinbestekoa da oinarrizko osagai eta funtzionamendu mota bat betetzea. Alderdi horiez aritu izan dira, besteak beste, Miret eta Baró (2016) edo Durbán (2010):

- Eskola-liburutegia baliabideekin elkarrenergina izatea ahalbidetuko duen espazioa izango da. Elkarrenergina hori irakurketaren edota elkarrizketaren bidez lortuko da. Horregatik, lanerako gune espezifikoak izatea eta ikasleen taldekatze ezberdinak (bakarka, binaka edo taldeka) posible egitea komenigarria da.
- Baliabide aldetik, esaterako, anitzak izan behar dira eskola-liburutegiak eskaintzen dituenak. Espazio hibrido bat dela jakinik, liburutegiak eskola-komunitatearentzat erabilgarriak diren

baliabide informatibo eta literarioak izan behar ditu eskuragai, paperekoak nahiz digitalak. Horien optimizaziorako, gainera, komenigarria da aukeraketa bat egitea eta erabilera partekatzeko aukera ematea.

Alde batetik, kolezio eguneratua eta anitza behar du, curriculumeko arlo ezberdinetan erabil daitekeena eta ikasleen adin eta behar ezberdinetara egokituak. Barne hartu beharko ditu informazio bilaketarako materialak, nahiz literarioak.

Bestalde, IKT baliabidez hornitua egon behar da. Internetarako konexioa behar da, bertako edukietara sarbidea izan eta ezagutza eraiki nahiz zabaldu ahal izateko.

- Lan-lerro zabala izango du eskola-liburutegi berritzaile batek. Funtsean, ikastetxeko ikerketa lanetarako eta irakurketa-idazketa interbentzioetarako material espezifikoak erabilera kudeatuko duen diziplinarteko eragile bat izango da. Hori horrela, bere esku-hartze eremu nagusiak ondorengoak izango lirarteke: irakurketa sustatzea, Konpetentzia Informazionala garatzea eta ikerketa lanetan laguntzea.

Esku-hartze eremu horietan eskola-liburutegiaren lana hiru eratakoa izango da, batez ere. Alde batetik, formakuntza emango die ikasle, irakasle zein komunitateko beste partaideei. Bestetik, irakasleekin elkarlanean eremu horiei dagozkien esku-hartze didaktikoak prestatu/proposatuko ditu. Eta, azkenik, lan horietan laguntza eta jarraipena eskainiko du.

Dimentsio desberdinen baitan liburutegiak ikasleen aspektu intelektual eta emozionalak sustatzen ditu eta horiei laguntzen die, euren garapen pertsonal eta sozialerako. Ondoko taulan (ikus 2. taula) azalduko ditugu, dimentsio horien baitan, eskola-liburutegiak ikastetxean egin ditzakeen ekarpenak.

KONTZEPTUA	EKINTZA	EKARPENAK
Dimentsio fisikoa		
Antolakuntza egitura egonkorra	Errazten du	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio eta literatura materialen hautaketa koordinatua. - Baliabideen zentralizazioa, erabilera elkarbanatua ziurtatzeko. - Material anitz eta kalitatekoetara sarbidea izatea. - Elkar topatzeko eta harremanak izateko leku bat egotea. - Ikasketarako eta irakurketarako inguru bat egotea.
Ikasketarako eta irakurketarako ingurua	Laguntzen du	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa praktiken eta gaitasun intelektualen garapenean. - Ikerketa lanak eta irakurketa esku-hartzeak egiten. - Ikastetxean idazteko eta irakurtzeko giroa sortzen. - Liburutegiaren erabileran, hezkuntza baliabide bezala.
Hezkuntza dimentsioa		
Hezkuntza baliabidea	Sustatzen du	<ul style="list-style-type: none"> - Irakas-ikaskuntza prozesuak burutzea. - Hezkuntza Premia Bereziei erantzuteko arreta eta ikasleen arteko desberdintasunen konpentsazioa. - Familiak irakurketaren sustapenean inplikatzeko dituzten ekintzak. - Irakaskuntza praktikari laguntza pedagogikoa.
Diziplinarteko eragile pedagogikoa	Sostengatzen du	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko Hezkuntza eta Curriculum Proiektuaren garapena. - Hezkuntza praktika, maila metodologikoan eta curricularrean. - Ikerketa bidez ikasteko eta irakurketa-idazketa praktikarako egoerak diseinatzea. - Ikastetxean hasten diren irakaskuntza hobetzeko prozesuak.

2. taula: Dimentsio desberdinen baitan, eskola-liburutegiak ikastetxean egin ditzakeen ekarpenak. Iturria: Durbán, 2010.

Oinarritzko osagai horien artean, liburuzainak garrantzi berezia dauka eskola-liburutegiaren kontzeptu berri honetan. Izan ere, baliabide hau hezkuntza berrikuntzarako eraginkorra izan dadin, oinarritzkoa da liburuzainak ekarpen horiek egin ahal izateko prestakuntza egokia izatea, eta hortaz, profil zehatz bat garatzea.

Irakasle liburuzain berri honek espezializazio bikoitza beharko du: pedagogian eta bibliotekonomian (Baró, Cosials, 2003). Alde batetik, ezagutza izan behar du garapen curricularrean, esku-hartzeen diseinuan edo ikaskuntzaren metodo eta teorian, esaterako. Beste alde batetik, ikastetxeko *informazioan aditua* izango da (Durbán, 2010). Informazioaren erabileran jakintsua eta kompetentea izan behar du (Baró, Cosials, 2003), hasi bilaketa estrategia eta erabakietatik, eta iturrien kontraste eta balorazioraino.

Liburuzaina irakasle eta ikasleak gai horien inguruan formatzearen arduradun izango da. Hala ere, lan hori ez du bakarrik egingo. Izan ere, irakasleekin elkarlanean egingo du; irakurketa, literatura eta Konpetentzia Informazionalarekin lotutako eduki curricularren inguruko gaietan erreferente nagusia izango delarik.

Hori horrela, funtsezkoa da administrazioak profil hori ezagutu eta horren alde egitea. Garrantzitsua da bere konpetentzia eta funtzioak ongi definitzea, kalitatezko formakuntza eskaintzea edota eskola-liburutegian lan egiteko denbora espezifiko ematea.

Horrez gain, eskola-liburutegiak kontzeptualizazio argi bat behar du, bai administrazioaren aldetik, baina baita ikastetxean bertan ere. Eskola-liburutegiak izango duen izaera eta norabidea klaustroan erabaki beharrekoak dira eta ikastetxeko dokumentuetan ondo finkatuta egon behar dira. Hori guztia, gainera, komunitate osoaren lankidetzarekin osatu beharko da: irakasleak, zuzendaritza-taldea, beste liburuzain eta profesionalak, familiak, etab. Ildo horretatik, bat egiten dugu Durbánek (2010:12) esanarekin: *solo avanzaremos cuando sepamos hacia donde caminamos*.

Azpimarratu behar dugu, eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntza egia bihurtzen lagundu dezakeen arren, hori ez dagoela baliabide horren esku soilik. Ez da hezkuntza-berrikuntzarako berme bat (Corina, 2003). Benetan daukan potentzialtasuna aprobetxatu nahi bada, ezinbestekoa da eskola-komunitate osoak gai honen inguruko kontzientzia eta ardura hartzea. Lan horretan, gainera, garrantzia berezia daukate irakasleek. Izan ere, aldaketa metodologiko horiek eman daitezen ezinbestekoa da irakasleek eskola-liburutegiak erabiltzeko borondatea izatea (Durbán, 2010).

Atal honekin amaitzeko, azaldu beharra daukagu, baliabide honek ikasleen eskola garapenean ekar ditzakeen onurak frogatu izan direla. Eskola-liburutegiak eta honen erabilera egokiak

haurren emaitza akademikoetan duten inpaktuaren inguruko ikerketak egin izan dira, esaterako, eta Miret eta Barók (2016) azaltzen dutenez, datuek honako hau erakusten dute:

- Estandarizatutako azterketetan puntuazio altuagoak.
- Irakurketan eta informazioaren alfabetizazioan emaitza arrakastatsuagoak.
- Irakurketa sarriagoa eta sakonagoa.
- Ikasketenganako jarrera positiboagoak: motibazio, autoestimu eta autonomia handiagoak.
- Irakasleriaren garapen profesional handiagoa.

Bestalde, PISA 2015 (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2016) informeak argitaratutako datuen arabera, Espainian Gaztela eta Leonek lortu zuen puntuazio altuena irakurketari dagokionean. Bertako gobernuko Hezkuntza Berrikuntza eta Ekitate arduraduna den Pilar Gonzalezek El Correo egunkariari egindako adierazpenek (Fernandez Vallejo, 2016) diotenez, arrakastarako giltzarrietako bat izan da eskola-liburutegietan egin duten inbertsioa. Bere esanetan, ikastetxeko espazio baloratuenetakoa da eta bertako jarduera eskola osora zabaltzen da. Gonzalezek dionez, *baliabideen bulego* modukoa da eskola-liburutegia.

Gaztela eta Leonen eskola-liburutegiek duten garapena, ordea, ez da gainontzeko hezkuntza sistema osora zabaltzen den errealitatea. Horixe azaldu nahi izan dugu lanaren hurrengo atalean.

2.3. Eskola-liburutegi berritzailearen egungo egoera

Eskola-liburutegien definizio eguneratuak honek hezkuntza berrikuntzan egin dezakeen ekarpena argi erakusten duen arren, oraindik ere badaude gure testuinguruan eskola-liburutegien inplementazio orokorra galarazten duten zenbait arrazoi edo muga.

Galarazpen horren oinarria administrazioak gai honen inguruan duen interes falta izan daiteke. Zenbait lekutan esfortzua egiten den arren, egun administrazioak bultzatzen duen liburutegiak hasierako planteamendu teorikoaren zati bat soilik hartzen du kontuan, eta ez dago gizarte digitalak ezartzen dituen erronkei erantzuteko prest (Miret, Baró, 2016).

Orokorrean, bai estatuan eta baita EAEn ere, egiten diren inbertsioak irakurketa sustatzearekin loturikoak izan ohi dira (Miret eta Baro, 2016; Durbán, 2010), irakurketa era tradizionalen ulertuta eta, gehienetan literarioarekin lotura duena. Eta fokatze horrek, noski, ez ditu asetzen gaur egun eskola-liburutegi batek ase beharko lituzkeen irakurketa era berrien eta gainontzeko ezagutzen beharrak.

Serna, Rodríguez eta Etxanizek (2017) diotenez, beharrezkoa da hezkuntzako administrazio publikoak eskola-liburutegien sorrera eta sustapena aurrera eramango dituen politika irmo eta iraunkorrak izatea. Izan ere, administrazioak zenbaitetan eskola-liburutegiaren aldeko pausuak

eman dituen arren, konpromiso hori ez da izan ez erregularra eta ez sendoa, gehienetan egungo egoera ekonomiko zailaren aitzakian.

Sufritzen ari garen eskola-liburutegien murrizketa politikaren aurrean (Coronas, 2015), aurrekontu erregular eta sendoa behar da, arduradun espezializatuak, ekipamendu egonkor eta beharrezkoak, material eguneratuak eta marko metodologiko berri bat. Hori horrela, Durbánek (2010) dionaren arabera, inplementaziorako zehaztasunetan aurrera egitea eta, bereziki, laguntzarako, aholkularitzarako eta irakasleriaren formakuntzarako aurrekontuak handitzea falta da.

Gurera ekarrita, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza sailak ez du horren alde egiten. Hori gutxi balitz, irakasle liburuzainen plazak ezabatzen ari dira, era horretan, eskola-liburutegiak (ulertzen ditugun bezala ulertuta) desagertutako kondentatuz (Serna, Rodríguez, Etxaniz, 2017). Hala ere, ez da hezkuntza administrazioa eskola-liburutegien garapenerako bidean harriak jartzen dituen bakarra. Durbánek (2009) lau puntu nagusitan bildu zituen eskola-liburutegien garapenean, ikastetxeetako egunerokoan, existitzen diren tentsio nagusiak:

1. Eskola-liburutegi baliagarria: *Izan ala ez izan?* Askotan uste da eskola-liburutegi egoki bat izateko nahikoa dela ondo ekipatua eta pertsonala duena izatea. Hala ere, baliagarria izan dadin, ezinbestekoa da baliabide horien erabilera. Liburutegi zerbitzu tradizionala baino garrantzitsuagoa da horren funtzio hezitzailea; hots, ikasketarako espazioa bihurtzea. Horretarako, irakasleak izan behar dira erabilera horren beharra sortu behar dutenak, ondoren, liburuzainaren laguntzaz ekiteko.
2. Papereko kulturatik, kultura digitalera: *Internet ala liburutegia?* Egun Interneten denetatik daukagula iritzita, liburutegiaren beharra zalantzan jartzen da. Honen aurrean hausnarketa bat behar da, kultura idatziaren funtzio soziala birkokatuz, kultura bisualarekin eta teknologia berriekin elkarbizitzeko.
3. Liburutegiko koordinatzailea: *Irakaslea ala liburuzaina?* Orokorrean irakasleek liburuzaina liburutegiaz arduratzen den pertsona dela uste dute. Hala ere, hezkuntza baliabide eta curriculumaren garapenean hobekuntzarako laguntza bezala ulertzen badugu liburutegia, perspektiba hori aldatu beharra dago. Hortaz, liburuzainaz baino, liburutegiko koordinatzaileaz edo arduradunaz arituko ginateke. Hala, hezkuntza aitortzen duen eta lan horretarako gaitasun espezializatua duen figura bihurtzen da. Liburutegiko koordinatzaileak, beraz, hezkuntzan laguntzeko pertsona bezala izango ditu funtzio eta zereginak eta klaustroarekin eta zuzendaritzarekin erantzunkidetasunean beteko ditu.
4. Inplementazioa teoriatik praktikara: *Nahi eta ezin? Ala ahal izan eta nahi ez?* Eskola-liburutegiak teoriatik praktikara eramateko pausua irakasleek egin behar dute. Hala ere,

kolektibo horrek askotan zailtasunak ditu horren erabilerarako, hainbat arrazoiengatik: ikasle mota desberdina, denbora falta, baliabide eta estrategia metodologiko desegokiak, arloka antolatutako programazioak... Batzuetan, arrazoi horien aitzakian, aldaketak egin gabe geratzen dira. Dena den, ez dugu ahaztu behar gehienetan hezkuntza berrikuntza norberaren borondatek hasten dela, teoria handietatik baino. Hala, beharrezkoa da ikastetxeetako metodologia aldatzea, ikasleek era esanguratsuan ikas dezaten.

Hala ere, gai honen inguruko eztabaida ondo bideratu beharrean ikusten gara. Igarzaren (2016) esanarekin bat eginik, eskola-liburutegien etorkizuna zein den galdetu beharrean, etorkizuna duten eskola-liburutegiak zeintzuk diren eztabaidatu beharko genuke.

Horregatik, hezkuntza berrikuntzarako orokorrean, eta eskola-liburutegien garapenerako zehazki, trabak existitzen diren arren, ez dugu ahaztu behar horien inplementazioa guztiz errealia dela eta potentzialtasun handia dutela.

3. HELBURU ETA HIPOTESIAK

Lanaren abiapuntua izan zen eskola-liburutegiek hezkuntza berrikuntzarako daukaten potentzialtasuna ustiatzen ez denaren hipotesia. Hori dela eta, eskola-liburutegi zehatz bat ikertzea izan dugu helburu, duen gaitasun hori aprobeztatzen den aztertzeko.

Alde batetik, behaketa bitartez, azpiegitura, ekipamendu eta instalazio aldetik zein egoeratan dagoen jakin nahi izan dugu. Eta, beste alde batetik, galdetegiak eginda, eskola-komunitateko partaideek eskola-liburutegiaren erabilgarritasun eta eraginkortasunaren inguruan duten kontzientzia ezagutu nahi izan dugu. Beste era batera esanda, liburutegi zehatz horren diagnostia eta ebaluazioa egitea izan dugu helburu.

Lanarekin amaitzeko, egindako diagnosi horretatik abiatuta eta eskola-liburutegiaren definizio eguneratuan oinarrituz, hobekuntza proposamen bat egitea eta honek eskolaren berrikuntzan ekar ditzaken ondorioak ezagutaraztea izan dugu helburu.

Aurrez zehaztutako hipotesi eta helburuei berriz helduta, hortaz, lan honen ardatz galdera nagusi bat izan da: *Aprobeztatzen al da eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntzarako duen potentzialtasuna?*

4. METODOA, LAGINA ETA PROZESUA

4.1. Ikerketa-metodoa

Lan honen kasuan, eskola-liburutegi baten errealitatea nolakoa den eta horren potentzialtasuna baliatzen den ulertu nahi izan dugunez, ikerketa mistoa egin dugu. Alde batetik, ikerketan jaso ditugun datuak kuantitatiboki aztertu ditugu. Baina, bestetik, ikerketa kualitatiboaren bidea ere

jarraitu dugu, fokatze honek ematen baitigu aukera errealitate soziala ikertu eta ulertzeko (Ugaldek eta Balbastrek 2013).

Kasu honetan, ikerketa autoebaluaziorako baliabide mota bat bezala ulertu dugu; hots, daukagun errealitatea aztertu eta hobekuntza proposamena egiteko erreminta bezala hartu dugu. Izan ere, era horretako ebaluazio edo diagnostia ezinbestekoa da edozein zerbitzuren hobekuntzarako hartu beharreko neurri edo erabakiak zehazteko.

La herramienta de autoevaluación supone una ayuda imprescindible para la evaluación y la mejora de la biblioteca escolar. Es una herramienta clave para poder determinar las medidas que hay que tomar, así como una contribución importantísima al análisis y la planificación de la evolución y mejora de los servicios que ofrece. Permite situarnos en el punto de partida en el que se encuentra la biblioteca de nuestros centros, así como diseñar procesos de mejora de manera muy apropiada. (Miret eta besteak, 2011:136)

4.2. Datu bilketarako tresnak

Gure kasuan, datu bilketarako behaketa eta galdetegiak erabili ditugu. Bietan lortutako erantzun positibo eta negatiboak kontuan hartuta egin genuen diagnostikoa (Chubut, 2010); hala, liburutegiaren eta horren zerbitzuen indargune eta ahulguneak detektatu ahal izan genituen, lanari perspektiba zabalago bat eskainiz.

4.2.1. Behaketa-fitxa

Alde batetik, behaketa zuzena egin genuen. Horren helburua inolako manipulaziorik gabe, era sistematiko eta kontrolatuan, egoera begiratzea eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea izan da. Modu honetara, liburutegiaren azpiegitura, ekipamendua eta instalazioak ebaluatu nahi izan ditugu.

Kasu honetan, Juaristiren (2003) gizarte ikerketarako tekniken sailkapena kontuan hartuta, behaketa zuzen deskribatzailea eta egituratua izan da. Horretarako, aurrez kodifikatutako behaketa-fitxa bat erabili genuen, behatu nahi genituen ezaugarriak zehatz mehatz definituta dituen.

Behaketa-fitxa (ikus 8.1. *eranskina*) sortzerako garaian, gaian adituak direnen esanetan eskola-liburutegi berritzaileek izan beharko lituzketen ezaugarriak hartu genituen aintzat. Fitxaren oinarrian Chubutek (2010) egindako taula hartu genuen, gero gure hezkuntza errealitatera egokitzeko. Horrez gain, Miret eta besteak (2011) zehazten dituzten liburutegiaren oinarrizko datuak ere kontutan hartu genituen, behaketa-fitxa aberasteko.

4.2.2. Galdetegia

Bestalde, ikastetxeko zenbait norbanakori galdetegi bat egin genien. Izan ere, Juaristik (2003:85) baieztatzen duen moduan, *aztertutakoa gai soziala denez, ezin dugu gizakiek euren portaerei ematen dieten sakoneko esanahia ezagutu kanpo portaera soilik behatuz*. Ondorioz, esanahi hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko biderik onena pertsoneri galdetzea dela uste izan dugu.

Horrela, eskola-komunitateko kolektibo edo norbanako ezberdinek eskola-liburutegiaren erabilgarritasun eta eraginkortasunaren inguruko zein kontzientzia duten jakin nahi izan genuen.

Guztira, lau galdetegi sortu genituen, bakoitza eskola-komunitateko kolektibo edo banako bati zuzenduta. Hortaz, zuzendaritza-taldearentzat (ikus 8.2. *eranskina*), liburuzainarentzat (ikus 8.3. *eranskina*), irakasleentzat (ikus 8.4. *eranskina*) eta ikasleentzat (ikus 8.5. *eranskina*) galdetegi desberdinak sortu genituen. Denetan abiapuntua berdina izan zen arren, bakoitzaren ezaugarri eta funtzioetara egokitzen diren galderak egin genizkien.

Erabili ditugun galdetegiak gehienbat galdera itxiz osatutakoak dira. Era horretan, denek abiapuntu berbera izan zuten, errazago alderatu ahal izan genituen erantzunak. Era berean, inkestautentzat erraz eta bizkor erantzuteko modukoak izan ziren.

Galdetegi horiek sortzeko, aurrez eskola-liburutegien inguruko beste ikerketa batzuetan erabilitako inkesta eta galdetegietan oinarritu ginen. Zehatzago esanda, Miret eta besteek (2011) sortutako eskola-liburutegien autoebaluaziorako tresnatik hautatu genituen ikertu nahi izan dugun horretara gehien egokitzen diren galderak.

4.3. Lagina

Ikerketa hau CEIP Orokieta HLHI Zarautz (Gipuzkoa) ikastetxean egin genuen. Zehatzago esateko, bertako *Babelia* izeneko liburutegi-mEDIATEKA eta eskola-komunitatearen iritzia aztertu genituen.

Galdetegia bete zuten kolektibo eta norbanakoen laginak ikastetxearen errealitatea ahalik eta era osoenean irudikatzea izan zen gure helburua. Era berean, lagina zehazteko orduan, kontuan hartu genuen eskola-liburutegia hezkuntza-komunitate osoak erabiltzeko baliabidea dela. Horregatik, besteak beste, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleei egin genizkien galderak.

Haur Hezkuntzako kasuan, 4 eta 5 urteko haurrei egin genien galdetegia. Izan ere, adin-tarte horretako ikasleak dira, batez ere, eskola-liburutegia erabiltzen hasiko liratekeenak, aurreirakurketa-idazketa garatzeko garaian baitaude. Kurtso bakoitzeko tutoreek aukeratutako

5 haur hartu genituen; ezezagunekin kikiltzen ez direnak izan ziren, galdetegia egitean ahalik eta errazen egiteko.

Lehen Hezkuntzakoei dagokienez, 1., 4. eta 6. mailak hautatu genituen. Kasu horietan guztietan kurtsoko tutoreek aukeratutako 10 ikaslek bete zuten galdetegia.

LHko lehen eta azken mailako ikasleak hautatu genituen, ikusteko irakurketa-idazketaren menderakuntza prozesuan mailarik azalenekoa eta sakonagoa daukaten haurretan eskola-liburutegiak zein erabilera eta eragin duen.


Prozesu horren bitartea baloratzeko, 4. maila izan zen aukeratua, erreferentzia bezala ISEI-IVEIen² etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoa hartuta. Izan ere, LHn ebaluazio hori egiten dutenak 4. mailakoak dira.

Aukeratutako maila bakoitzeko tutore guztiek (kursoko 4 irakaslek) galdetegia betetzea ikusi genuen egokien. Hori bete izan balitz, 20 irakasleren erantzunak edukiko genituzkeen. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa izan zitzaigun horietako birenak jasotzea eta, beraz, 18 tutoreen erantzunak eskuratu genituen guztira.

Ikasle eta irakasleez gain, zuzendaritza-taldeak (kolektibo bezala) eta liburuzainak ere bete zuten galdetegi bana.

4.4. Prozesua

Ikerketa-lan hau fase ezberdinetan gauzatu da, hausnarketa pertsonaletik hasi, errealitate baten azterketa egin eta hori hobetzeko proposamen bat garatzeraino. Ildo horretan, Sernak (2015) egindako ikerketa prozedura adibide gisa erabili badugu ere, azkenean, hemen aurkezten den lanak bere nolakotasun propioa hartu du. Izan ere, helburu profesional zein pertsonalak lortzeko jarraitu den Ikasketa-Zerbitzua deritzon proposamen pedagogikoaren pausuekin (Zorrilla, Capella eta Gil, 2016) ere egiten du bat ikerketa-lan honek. Hala, fase guztiak ondoko eskeman bildu nahi izan ditugu:



4.4.1. Hutsuneen hautematea eta ikerketaren diseinua

Lanaren lehen pausua GrALerako ikerketa-lerroa zehaztea izan zen. Gure kasuan, eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntzarako duen potentzialtasuna aztertzea nahi izan genuen.

² Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko euskal erakundearen web-orria
<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/ed-2017>

Horretarako, aurrez ezaguna zen liburutegi bat hautatu genuen, izan zitzakeen hutsuneak identifikatuta, ikerketarako aukera baliagarria emango zigula iritzita.

Erabaki hori hartuta, lehendik egindako ikerketetan oinarrituta (Chubut, 2010; Miret et al., 2011; Serna, 2015), gurearen diseinua burutu genuen. Ikerketa-metodoa zehaztu, datu bilketarako tresnak sortu eta lagina hautatu genuen.

4.4.2. Ikerketa burutzea

Irakasleek, zuzendaritza-taldeak eta liburuzainak euren aldetik bete zituzten galdetegiak eta, ondoren, guri entregatu. LH 6. mailako ikasleek ere, egun horretan irteera zuten, ezin izan zuten gurekin aurrez-aurre egon eta, beraz, euren tutoreen laguntzaz bete zuten.

Gainontzeko haur guztiak mailaka atera genituen aparteko gela batera galdetegia egiteko. Denei idatziz egin genien inkesta, Haur Hezkuntzako ikasleei izan ezik; horiei, oraindik ere hizkuntza idatzia menderatzen ez dutenez, ahoz eta galderak sinplifikatuta (ikus 8.6. *eranskina*) egin genien.

Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleei ere, arrazoi berdinetatik, laguntza eman genien galdera-erantzunak irakurtzerako garaian, nahiz eta bakoitzak bere galdetegia bete zuen.

Behaketa-fitxa betetzeari dagokionez, fitxa horretan behatu nahi genituen ezaugarri eta alderdiak zehatz-mehatz definituta zeudenez, nahikoa izan genuen bertan gurutzeak egin eta zenbait ohar hartzearekin. Lan horretan liburuzainaren laguntza izan genuen.

Prozesuan zehar informazio gehiago behar izan dugunean, liburuzainaren laguntza izan dugu. Uneoro prest egon da edozein galdera erantzuteko: liburutegiaren proiektuaren inguruan, eskolako metodologiari buruz... Horretarako, berarekin aurrez-aurre edo posta elektronikoko bidez komunikatu ahal izan gara.

4.4.3. Datuen estatistika azterketa

Galdetegietan jasotako datuak aztertzeke EXCEL programa erabili genuen, aldeztetik datuak kodifikatuz. Lehenik, jasotako erantzunak prozesatu genituen, balio ezberdinak emanez (ikus 8.7. *eranskina*). Lau eratako erantzunak ziren: bai/ez erakoak, maiztasuna adieraztekoak, balorazioa egitekoak eta galdera ireki bana.

Behaketa-fitxaren kasuan, zehaztuta zeuden itemen baiezko eta ezezko erantzunak zenbatu genituen eskuz. Jarraian, itemetan zehazten zena deskribatuz aurkeztu genituen jasotako datuen emaitzak. Behaketa-fitxak erantzuten zuen ikerketa-dimentsioa ere definitu genuen: *liburutegiaren azpiegitura, ekipamendua eta instalazioak*. Horrela, ateratako emaitzak ikerketa-dimentsio horren baitan antolatzeke aukera izan genuen.

Datu bilketarako tresnen atalean (ikus 4.2. *atala*) aipatu bezala, galdetegi guztiek abiapuntu bera dutenez, kolektibo bakoitzari egindako galderak trukatu egiten dira; hots, ikerketa-dimentsio berari erantzuten diote. Horregatik, lehenik ikerketa-dimentsioak definitu eta bakoitzari zegozkion galderak sailkatu genituen (ikus 8.8. *eranskina*), ondoren, emaitzak dimentsioka antolatuta aurkezteko eta kolektibo ezberdinen erantzunak elkarren artean kontrastatu ahal izateko.

Ondokoak dira, eskola-komunitateak liburutegiaren erabilgarritasun eta eraginkortasunaz duen kontzientziaren baitan, ikerketa-dimentsioak: liburutegiaren existentziaren ezagupena; presentzia eskolako txosten, aurrekontu eta bilera garrantzitsuenetan; elkarlana eta koordinazioa; liburuzainaren lana eta liburutegiko zerbitzuak; eskola-liburutegiaren erabilera; eskola-liburutegiaren eraginkortasuna.

Amaitzeko, gure emaitzek eta ondorioek gaiaren inguruko beste ikerketa batzuek esaten dutenarekin lagunduta, hobekuntza proposamena egin dugu, eta lan honetan aurkezten dugu. Ondokoa izan zen horretarako ardatz hartu genuen galdera nagusia: zer komeni da egitea eskola-liburutegi batek hezkuntza berrikuntzan laguntzeko?

5. EMAITZAK

5.1. Liburutegiaren azpiegitura, ekipamendua eta instalazioak

Behaketa-fitxaren emaitzetan ikusi daitekeen moduan, azpiegitura, ekipamendu eta instalazio alderdiak kontuan hartzen baditugu, *Babelia* liburutegi-mediatekak fitxan definituta agertzen diren item gehien-gehienak betetzen ditu. 57 itemetatik 50 baieztatu eta 7 ezeko jaso dira. Hala ere, azken horietatik 5 *ezeko-partzialak*³ direla esan dezakegu.

Espazio fisikoa dela eta, eskola-liburutegiak ingurune egoera egokiak dituen erabilera eskusiborako espazioa dauka. Gune ezberdinetan banatuta dago (irakurketarako, ikasketarako, mediatekarako, liburuzainarentzako...) eta jarduera ezberdinak aldi berean egiteko gaitasuna badute; nahiz eta normalki jarduerak era berezian egiten dituztela esan duen liburuzainak.

Espazio horietarako ekipamendu egokia dutela baieztatu dute. Altzariei dagokienean, liburutegiko funtzioetarako beharrezkoak badituzte eta erabiltzaileentzat egokiak dira. Ekipamendu eta instalazio teknikoak ere nahikoak dira beharrei erantzuteko. Liburutegiaren gestiorako, kontsultarako edota lanerako ordenagailu gune bereziak daude, ekipatuak eta Internetarako konexioarekin.

³ Itema zuzenean betetzen ez bada ere, eskola-liburutegi berak hutsune hori betetzeko bideren bat badaukalako deitu diogu *ezeko-partzial*.

Liburutegiko kolekzioa mota askotakoa (bibliografikoa, ikus-entzunezkoak, elektronikoak...) da, ikasleen aniztasunari (adin-tarte, interes, premia bereziei...) erantzuten dio eta ABIES⁴ programaren bitartez automatizatuta dago. Materialak SHU⁵ren arabera antolatuta dituzte eta katalogoa erabiltzaileen eskura dago (on-line ere badute). Horrez gain, urtero egiten da funtsaren garbiketa edo xahutzea eta, beraz, material eguneratua daukatela esan dute.

Babelia liburutegi-mediatekak zerbitzu zabalak eskaintzen ditu. Alde batetik, liburuak mailegatu daitezke etxerako, geletarako edo liburutegien artean. Bestalde, espazioa (eta bertako materiala) ikasteko edota lan pertsonalerako ere erabil daiteke, bai eskola orduetan eta baita eskola orduetatik kanpo ere. Astelehen eta ostiraletan irekitzen dute ordu-erdiz arratsaldetan maileguak egiteko eta, bestela, ikasleek egunero ordenagailuetan ibiltzeko aukera dute mailaka antolatuta.

Bestalde, liburutegi honek ikusgarritasuna baduela ere agerian jarri da behaketa-fitxan. Seinaleztapen argia, eskola-komunitatera zabalduko informazio-taula propioa eta eguneratutako bloga⁶ dauzka; azken hori, gainera, eskolako web-orri orokorrean sartuta dago. Atal honekin amaitzeko, eskola-liburutegi hau irisgarria dela diote. Lehen Hezkuntzako lehenengo solairuan dago kokatuta, igogailua parean dauka eta espazioa aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokituta dago.

5.2. Eskola-komunitateak liburutegiaren erabilgarritasun eta eraginkortasunaren inguruan duen kontzientzia

a. Liburutegiaren existentziaren ezagupena

Haur Hezkuntzan galdetutako ikasle gehienek euren eskolan liburutegia ez dagoela esan dute. Kasu batzuetan, eskola-liburutegia geletan dituzten liburutegiekin (apalategi bat liburu gutxi batzuekin) nahastu dute.

Lehen Hezkuntzako ikasle guzti-guztiek, ordea, %100ean, erantzun dute eskola-liburutegia ezagutzen dutela.

b. Presentzia eskolako txosten, aurrekontu eta bilera garrantzitsuetan

⁴ ABIES programa Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak sortutako eskola-liburutegiak automatizatzeke sortutako aplikazio informatikoa da <http://www.acex.hezkuntza.net/web/guest/que-es-abies>.

⁵ *Sailkapen Hamartar Unibertsala*, bibliografiaren sailkapen-sistema da eta giza ezagutza osoa bil dezake bere baitan, maila materialean nahiz kontzeptualean. https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/cdu_eusk.pdf/f580b257-63d6-4252-a086-d862683468ff

⁶ Orokietako *Babelia* liburutegi-mediatekaren bloga <http://orokietakomEDIATEKA.blogspot.com/es/>

Zuzendaritza-taldeak, liburuzainak eta irakasle guztiek dakite eskola-liburutegia badagoela, baina irakasleetatik %61ak soilik ezagutzen du eskola-liburutegiaren proiektua. Kasu honetan, HHko irakasle gehiagok (%71) ezagutzen dute LHkoek (%36) baino.

Zuzendaritza-taldeak dio eskola-liburutegia berauen, eta beraz eskolaren, lehentasunetako bat dela. Liburuzainak, aldiz, galdera berari ezezko batekin erantzuten dio, hau da, berak dio eskola-liburutegia ez dela ikastetxearen lehentasunetako bat.


Babelia liburutegi-mediatekaren proiektu formala existitzen da eta horren urteroko planifikazio eta ebaluazioan parte hartzen du zuzendaritza-taldeak, ez, ordea, irakasleek, 18tik 1ek soilik esan baitu eskola-liburutegiaren planifikazio eta ebaluazioan parte hartzen duela. Liburuzainari galdetuta, aldiz, txosten hori egiten dela baieztatzen du, baina liburuzainak bere kontura eginda. Eskola-liburutegiak presentzia du ikastetxeko ondoko dokumentuetan: Urteko Programazioan eta Irakurketa/idazketa Planean, baina beste honakoetan ez: Hezkuntza Proiektuan, Curriculum Proiektuan, IKTen Planean eta Hizkuntza Proiektuan. Horrez gain, zentroko organo ezberdinen bileretan eskola-liburutegiaz *batzuetan* hitz egiten dela dio zuzendaritza-taldeak.

Ikastetxeak urtero eskola-liburutegia hornitzeko diru kopuru bat aurreikusten duen galdetuta, zuzendaritza-taldeak baiezkoa erantzun du, baina liburuzainak ezetz. Hala ere, argitu digu material berriren bat behar izanez gero, eskaera egin eta ez dutela hori eskuratzeko arazorik. Horrez gain, Zarauzko *Sanz Enea* udal liburutegiak ere laguntzen die materialak eskuratzen.

d. Elkarlana eta koordinazioa


Proiektu honetan duten elkarlan eta koordinazioaren inguruko datuak ere bildu ditugu. Hala, liburuzainak, funtzio horrekin, erregularik bilerarik egiten ez duela esan digu, ez zuzendaritza taldearekin, ez eta irakasleekin.

Liburuzainak irakaslearekin batera ikasleekin egiteko ekintzak *gutxitan* antolatzen dituela dio. Irakasleen iritziz, ondoko grafikoan (1. irudian) ikusten den bezala, ekintza hauek elkarlanean *inoiz ez* antolatzen dituztenak %67 dira, *gutxitan* %16,5, *batzuetan* %16,5 eta *askotan* %0. Elkarlan hori ohikoagoa da Lehen Hezkuntzan, Haur Hezkuntzan baino.



1. irudia: irakasleek liburuzainarekin batera egiten duten ekintzen antolaketaren maiztasuna.

Elkarrekin antolatzen dituzten ekintza horien artean, gutxien curriculumeko arlo ezberdinak lantzeko ekintza didaktikoak edota konpetentzia digital eta informazionala lantzeko ekintza didaktikoak dira. Eta *batzuetan* irakurketa sustatzeko ekintza didaktikoak.



2. irudia: Irakasleek liburuzainarekin batera antolatzen dituzten ekintza didaktiko ezberdinen maiztasuna.

Irakasleen erantzunek ere bat egiten dute aurreko emaitzekin, 2. irudian agertzen denaren arabera. Ekintza horietatik gutxienak izaten dira curriculumeko arlo ezberdinak lantzeko ekintza didaktikoak eta konpetentzia digital eta informazionala lantzeko ekintza didaktikoak. Eta apur bat gehiago irakurketa sustatzeko ekintza didaktikoak.

Orokorrean, irakasleei galdetuta ea ekintza didaktikoak irakasleek liburuzainarekin elkarlanean egin beharreko lana dela uste duten, erantzuna %100ean baiezkoa da HHn eta ia ezezko borobila LHn (11 erantzunetatik 9 ezezko jaso dira).

e. Liburuzainaren lana eta liburutegiko zerbitzuak

Jada Orokieta eskolako liburuzainaren lan-postua kendu egin denez, lan hori egiten duen irakasleak bere lanaldiaren erdia soilik eskaintzen dio eskola-liburutegiari, zuzendaritzak zeregin hori horrela moldatzea erabaki duelako. Lanaldi mota horrek zerbitzuaren eraginkortasuna mugatzen duela dio liburuzainak. Hala ere, eskola-liburutegiaren zerbitzua baloratzerako garaian, batezbeste 4 puntu eman dizkio (1-5 arteko puntuazio baten barruan).

Horrez gain, gaur egun Eusko Jaurlaritzak *Babelia* Gipuzkoako Eskola-Liburutegien sare barruan sartzen ez duen arren, talde horrek hilero egiten duen koordinazio bilerara gonbidatzen dute bertako liburuzaina. Bilera horietan oso baliagarri irizten duen formazioa jasotzen du ondorengo hiru eremuen prestakuntzarako: irakurketa sustatzeko jarduerak, alfabetizazio informazional eta digitalerako jarduerak eta ikerketa jarduerak antolatzeko eta jarraipena egiteko.

f. Eskola-liburutegiaren erabilera

Haur Hezkuntzan, ikasleek ez dute eskola-liburutegiaren erabilerarik egiten. Hala ere, geletan dituzten liburutegiei dagokienez, orokorrean, liburuak irakurri/ikusteko erabiltzen dituztela diote, edo irakasleak irakurtzen dizkietela bestela.


Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, eskola-liburutegiaren erabileraren maiztasuna antzekoa da, bai eskola orduetan eta bai eskola orduetatik kanpo; *inoiz ez* edo *gutxira* hurbiltzen da gehienbat. Bi kasuetan, erabilera igo egiten da ikasleak adinean aurrera doazen heinean.

Ikasleek, eskola orduetan, gehien irakurketarekin lotutako jardueretarako erabiltzen dute; liburuak irakurtzeko edota mailegatzeko. 1. mailako ia denek esan dute, adibidez, ipuin kontaketak eta antzerkiak ikusteko *askotan* erabiltzen dutela liburutegia. Izan ere, proiektuaren barruan sartuta dago lehen zikloko hurrekin hamabostero horrelako ekintzak egitea. Gutxien Konpetentzia Informazional eta Digitalarekin lotutako jardueretarako erabiltzen dute: informazioa bilatzeko, nola bilatzen den ikasteko edota ordenagailuak erabiltzen ikasteko. Ekintza horiez gain tertulia literarioak egiteko ere batzuetan liburutegira joaten direla diote zaharrenek.

Eskola orduetatik kanpo, ikasleek gehienbat bertako materialetan kontsultatzeko, irakurtzeko edota ordenagailuetan jolasteko erabiltzen dute. Horrez gain, liburuak mailegatzera eta liburuzainari laguntzera ere joaten dira zaharrenek, borondatez lan egiten duen ikasleen laguntzaile-taldea baitauka eskola-liburutegiak. Aldiz, gutxien eskolako lanak egiteko erabiltzen dute.

Irakasleei eskola-liburutegiaren erabileraren inguruan galdetuta, ikusi dugu, batez ere formakuntza jasotzeko erabiltzen dutela espazio hau. Ondoren egongo lirateke dokumentaziorako edota gelako metodologian txertatzeko baliatzea. Gutxien erabiltzen dute, ordea, lan pertsonalerako; hots, nobelak, egunkaria edo aldizkariak irakurri edo mailegatzeko, ordenagailuan ibiltzeko...

Zenbait irakaslek eskola-liburutegia gelako metodologian edo ekintzetan txertatzen saiatzen direla esan dute. Baina desberdintasunak daude ekintza moten artean. Esate baterako, gutxi batzuk liburutegian egiteko ikerketa lanak, diziplinarteko proiektuak, etab. proposatzen dizkie ikasleei. Beste zenbaitetan irakurketa sustatzeko ekintza didaktikoak ere antolatzen dira. Hala ere, gelako metodologian edo ekintzetan txertatzeko saiakerak, orokorrean, oso urriak dira, 3. irudian ikus dezakegun bezala.




Galdera bera liburuzainaren erantzunekin kontrastatuz gero, emaitza bestelakoa da. Honen ustez, erabilera *gutxitan* egiten da 3. irudian zerrendatzen diren ekintzetatik; curriculum arlo desberdinak lantzeko eta irakurketa sustatzeko ekintzena izan ezik, horiek *batzuetan* egiten direla esaten baitu.

g. Eskola-liburutegiaren eraginkortasuna

Bai zuzendaritza-taldeak eta bai liburuzainak, eskola-liburutegia berrikuntza faktorea dela irizten dute. Irakasleen artetik %86 dago ados baieztapen horrekin.

Ikasleei, informazio hori lortze aldera, eskolako liburutegia ikasketetan lagungarria zaien galdetu genien. Haur Hezkuntzan, oro har, ipuinak irakurtzea gustatzen zaiela eta horrek *gauza asko ikasten* laguntzen diela esan zuten. Lehen Hezkuntzan, aldiz, adinean aurrera doazen heinean, gero eta gehiago uste dute liburutegia lagungarri zaiela, 4. irudian ikus dezakegun bezala.



4. irudia: Zenbateraino zaien ikasketetarako lagungarria ikasleei liburutegia.

Galdetutakoek eskola-liburutegi honekiko duten asebetetze-maila aztertzeko, espazio edo zerbitzu hori nahikotzat jotzen duten galdetu genien eta 0-3 puntuazio tarte batean honakoak izan dira batezbesteko erantzunak (5. irudia): zuzendaritza-taldeak *gutxi* (1), liburuzainak *asko*

KOLEKTIBOA/ NORBANAKOA	ASEBETETZE- MAILA (0-3)
Zuzendaritza-taldea	1
Liburuzaina	3
Irakasleak	2,06
Ikasleak	2,3
Batezbestekoa	2,09

5. irudia: Ikastetxeko partaideen asebetetze-maila liburutegiarekiko.

(3), irakasleek *nahiko* (2,06) eta ikasleek orokorrean *nahiko* pozik (2,3) daudela esan dute.

Kolektibo edo norbanako guztiak kontuan hartuta, asebetetze-mailaren batezbestekoa *nahikoa* den arren, erantzun dutenetatik batzuek (%30) esan dute eskola-liburutegian eta bere zerbitzuetan zerbait faltan botatzen dutela. Faltan botatzen dituzten gauzetatik esanguratsuenak

honakoak dira: liburuzainaren liberazioa, erabilera gehiago, egunerokoan txertatzeko denbora eta IKT baliabide gehiago.

6. ONDORIOAK

6.1. Ikerketa gaiaren eta helburuaren inguruko ondorioak

Ikerketa honen ondorioak aurkezteko, lanaren galdera eta hipotesi nagusietara itzuli gara. Aprobetxatzen al da eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntzarako duen potentzialtasuna? Arestian esan bezala, gure hipotesia zen *eskola-liburutegiek* hezkuntza berrikuntzarako daukaten potentzialtasuna ikastetxeek orokorrean, eta Orokietak zehazki, ez dutela ustiatzen. Emaitzak aztertu ondoren, hipotesi hori egiaztatu ahal izan dugu.

Lehenik eta behin, behaketa-fitxaren emaitzetan nabaria da ondo hornitutako eskola-liburutegia dela. Pentsa dezakegu sorreran administrazioak dirutza inbertitu zuela eta eskolak esfortzu handia egin zuela. Hala ere, hurrengo urteetan ez dute aprobetxatu.

Nabarmentzekoa da, eskola-liburutegi hau berez irisgarria den arren, baduela eskola-komunitate osoak era erosoan erabiltzea oztopatzen duen alderdi bat. Izan ere, ikastetxea bi eraikinetan banatuta dago (Haur Hezkuntzako alde batetik eta Lehen Hezkuntzako alde bestetik) eta liburutegia Lehen Hezkuntzakoan kokatuta dago. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleak mugatuta dute zerbitzu honetarako sarbidea.

Espazioa egoera fisiko eta hornikuntza aldetik egoera onean dagoen arren, galdetegien emaitzetan ikus dezakegu ez dela behar bezala erabiltzen, eta, beraz, ez dela eraginkorra. Datuek erakusten digute irakasle gehienek ez dutela eskola-liburutegia hezkuntza baliabidetzat hartzen. Alderantziz, eskola-liburutegiaren ikuspegi tradizionala dute: irakurketarako erabilgarri ikusten dute, baina ez beste curriculum arloak eta kompetentziak lantzeko. Horrek adierazten du, eskola-liburutegiaren kontzeptualizazio berriaren inguruan hausnarketa gutxi egin dela eta ez dutela komunitatean adostu.

Era berean, ikus dezakegu ikasleek erakusten duten interesa nahikoa mugatua dela. Eskola-liburutegiaren erabilera ere mugatua da eta, gehienetan, irakurketaren sustapenari lotuta dago. Honen arrazoia liburutegiaren erabilera anitza euren eskura jartzen ez dela uste dugu.

Halaber, ikastetxeko metodologia orokorra ez dago eskola-liburutegia euren lanean txertatzeko prest. Formakuntza falta izan daiteke. Baina gehienek denbora falta aipatzen dute. Orain proiektu berri asko eramaten ari dira aurrera eta, beraz, lehentasunak markatu behar dituzte. Aitzakia horrekin, itzalean utzi dute eskola-liburutegia. Horri ez dio batere laguntzen zuzendaritza-taldearen lehentasuna ere ez izateak.

Bestalde, liburuzainaren zereginean ikusten da formakuntza baduela eta bere lana grinatsu egiten duela. Dena den, lanaldi osoa eskola-liburutegirako ez izateak, asko zailtzen du egitekoa. Gainera, bakarrik nabari diogu ikastetxean. Lan karga handia hartzen du eskola-liburutegiaren

ardura hartuta eta horri lotutako ekintza oro antolatzen. Irakasleen erantzunetan ere argi ikusten da elkarlan gutxi dagoela liburutegiko ekintzak antolatzerakoan.

Aurreko ondorio guztiak kontuan hartuta, baieztatu dugu *Babelia* liburutegi-mEDIATEKAREN egoera kaskarra dela. Baina zergatik zaigu hain kezagarria egoera? Bada, erantzuna xumea da. Miretekin (2006) bat eginez, eskola-liburutegi baten osasun txarrak, hezkuntza sistema baten gaixotasunaz ere -eta hortaz batez ere- hitz egiten digu.

Horregatik guztiagatik, aldaketak eman behar dira hezkuntza sistema benetan eraldatu nahi badugu. Kasu honetan, ikastetxe mailan hobekuntzak egin behar direla uste dugu, hala, eskola-liburutegia hezkuntza berrikuntzarako ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

6.2. Eztabaida

Alde batetik, esan beharra daukagu lanaren helburu nagusia bete eta gure hipotesia egiaztatu ahal izan dugula. Aztertu dugun eskola-liburutegiaren emaitzak ikusita eta gai honetan adituak direnek azken ikerketetan ateratako ondorioak kontuan hartuta, esan dezakegu eskola-liburutegiek hezkuntza berrikuntzarako daukaten potentzialtasuna ez dutela ustiatzen. Horrela gertatzen da behintzat gure inguruko ikastetxeetan. Administrazioak interesa galdu du baliabide honetan eta ahalegin guztiak egiten ditu eskola-liburutegiak garatu ez daitezen. Halaber, ikastetxeen barruan ere badituzte zenbait traba eta zailtasun horretarako.

Beste alde batetik, lan honetan erabilitako Ikasketa-Zerbitzu deritzon proposamen pedagogikoaren inguruan aipamena egitea gustatuko litzaiguke. Izan ere, Gradu Amaierako Lanak dituen prozesu eta helburuak guztiz jarraitzen dituen metodo bat da. Metodologia honetan adituak direnek ateratako ondorioekin bat eginez, onura profesional eta pertsonalak ekartzen dituen lan egiteko era bat dela esan dezakegu. Besteak beste, honako gauzetan lagundu digu: gure lanbidearekin eta inguruarekin konprometituak izaten (Gezuraga, 2017); ingurunearen parte garela eta horiek aldatzeko gai garela sentitzen (Ochoa, Perez, Salinas, 2018); identitate pertsonal eta profesional propioa eraikitzen, (Carrica, 2017); ardurak, konpromiso, autonomia eta ikaskuntza prozesuen bereganatze hobeago bat izaten (Martínez, Alonso, Gezuraga, 2013) eta etengabeko hausnarketan eta motibazioz lan egiten (Álvarez, Martínez, González, Buenestado, 2017).

6.3. Hobekuntza proposamena

Ikerketa egin ondoren, konturatu gara Orokieta *Babelia* liburutegi-mEDIATEKAK baduela zer hobetu eskaini ditzakeen aukerak gehiago ustiatzeko.

Ondorioztatu dugun bezala, eskola-liburutegi hau ondo hornitua dago azpiegitura eta ekipamendu aldetik. Hala eta guztiz ere, eskola-komunitateak ez dauka hori eskolako

eguneroko jardueretan erabiltzeko ohitura edo jarrerarik. Hori aldatu dadin, uste dugu komenigarria dela erabiltzaile guztiek (ikasle, irakasle, zuzendaritza-talde, liburuzain, guraso...) liburutegiaren inguruko formakuntza jasotzea. Era horretan motibatuko baitira baliabide hori erabiltzera (Cremades, Jiménez, 2015). Lan horretan administrazioak borondaterik jartzen ez duenez, eskola bera izan beharko da ardura hartu beharko duena.

Hasteko, oinarritzkoa da komunitate osoak eskola-liburutegi berritzaile baten definizioaren inguruan hausnartzea eta denen artean kontzeptua argitzea. Izan ere, kontzeptua aldatu egin da, baina badirudi oraindik ezagutza hori ikastetxeetara ez dela iritsi.

Horretarako, baliagarria izan daiteke lan honetan esaten dena kontuan hartzea edo autoebaluazio propioa egitea. Izan ere, horrek asko laguntzen du errealitatearen kontzientzia hartzen eta egoera hobetzeko lan-lerroak zehazten (Miret eta besteak, 2011).

Bestalde, ikusi dugu gehien eskatzen dena eskola-liburutegiko arduradunak lan horretarako ordu gehiago izatea dela, eta arrazoi osoz, dedikazio handia eskatzen baitu lan horrek. Hala ere, dena ezin da aspektu horretara mugatu, errealitatea askoz ere konplexuagoa baita (Durbán, 2009).

Egia da liburuzaina dela eskola-liburutegiaren arduradun eta gaian aditua, baina askotan ardura eta lan karga gehiegi ezartzen zaio. Funtzio hori izateagatik, ez da liburutegian lan egin behar duen bakarra. Baliabide honek ondo funtzionatu dezan, ezinbestekoa da eskola-komunitatearen elkarlana, irakasleena batez ere.

El maestro bibliotecario es, pues, un profesional que colabora con el profesorado, configurándose como un especialista y un referente a quien acudir para las cuestiones relacionadas con los contenidos curriculares de la lectura, la formación literaria y la Competencia Informacional. (Durbán, 2010:19)

Zuzendaritzak ere eskola-liburutegia ikastetxearen lehentasunetako bat egitea komenigarria da. Eguneroko lan hori aurrera eramango duen lan-talde sendo bat sortzea lagungarri izan daiteke, esaterako. Era horretan, kolektibo ezberdinetako (ikasleak, irakasleak, gurasoak, zuzendaritza-taldea...) ordezkariak bildu daitezke, liburuzainarekin batera, elkarrekin jardun eta eskola-liburutegiaren aldeko apustu garbi bat egiteko.

Horrez gain, uste dugu ikastetxeko metodologiak ez duela errazten eskola-liburutegiaren erabilera. Gaur egun, hezkuntza legeek hala defendatzen dutelako, eta testuinguru honetarako oinarri egokiena delako, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza bultzatzen da. Ikasleek jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea behar dute. Mota horretako irakaskuntza bat ahalbidetzen digu eskola-liburutegiak, hezkuntza baliabide bezala erabiltzen bada.

Hala eta guztiz ere, erabilera hori eraginkorra izan dadin, ikastetxeko edota gelako metodologiek horretarako bide eman behar dute. Ikuspegi berri horren arabera, ikaskuntza funtzionala eta aplikagarria izan behar da; eremu pertsonal, interpersonal eta profesionala kontutan hartzen dituen garapen integral baten beharrari erantzuna emateko gai izan behar da (Chiva eta Martí, 2016).

Horren aurrean, eta hainbat adituren iritziarekin bat eginez (Chiva eta Martí, 2016; Durbán, 2010), eskola-liburutegiak hezkuntza berrikuntzarako duen potentzialtasuna aprobetxatzeko egokiena ikastetxean metodo pedagogiko aktibo eta globalizataileak edota ikerketa bultzatzen dutenak jarraitzea dela uste dugu. Metodo horien adibide da Proiektu Bidezko Ikaskuntza (PBI), esaterako.

Hobekuntza proposamen honetan zehaztutako puntuak oso orokorrak diren arren, uste dugu ikastetxeetako baliabideak, tartean eskola-liburutegia, hobetzeko gakoa autoebaluazioan eta hausnarketan dagoela. Hala, talde-lanean arituz eman ahalko zaie irtenbidea bestelako hutsune zehatzago batzuei. Orokietaren kasuan, esaterako, ondokoak izan daitezke: nola zabaldu eskola-liburutegia etapa guztietara (HHra zehazki); edota nola lan egin eskola-liburutegian irakurketa sustatzeaz gain, Konpetentzia Informazionala garatu edo ikerketa bultzatzeko, besteak beste.

6.4. Ikerketaren mugak eta bide berriak

Lehenik eta behin, Gradu Amaierako Lan honek garapen aldetik dituen mugak aipatu nahiko genituzke. Izan ere, mota honetako lan batek izan dezakeen luzera eta sakontasuna kontuan hartuta, lagin mugatua aztertu dugu. Horrez gain, gaiaren inguruan interesgarriak liratekeen zenbait alderdi ere kanpoan utzi behar izan ditugu.

Alde batetik, ikastetxe konkretu baten errealitatea nahiko zehatz aztertzeke aukera izan badugu ere, ikerketa honen ondorioek eskola-liburutegiek gure testuinguruan duten egoera orokorra ez dute islatzen. Bestetik, ikerketa lan honetan aztertutako puntuak gehiago garatzeko zailtasunak ere izan ditugu.

Hala ere, gai honen inguruko beste ikerketa batzuetarako abiapuntu izan daitekeela uste dugu. Hala, beste ikastetxe batzuetako eskola-liburutegiak aztertzeke eredu bezala erabili daiteke. Aurrerantzean, interesgarria iruditzen zaigu beste ikastetxe batzuetako errealitateak ere ezagutzea eta bestelako alderdietan (eskola-liburutegien erabilera eskolako metodologian nola txertatzen den, esaterako) ere sakontzea.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Álvarez Castillo, J. L., Martínez Usarralde, M. J., González González, Hl eta Buenestado Fernández, M. (2017). El Aprendizaje-Servicio en la formación del profesorado de las universidades españolas. *Revista Española de Pedagogía*, 75 (267), 199-217.
- Baró, M. eta Cosials, A. (2003 abuztua). El bibliotecario escolar como facilitador de un proceso de cambio educativo. *World Library and Informational Congress: 69th IFLA General Conference and Council kongresuan aurkeztua*: Berlin: Education and Training & School Libraries and Resource Centres.
- Carrica Ohoa, S. (2017). La educación emocional del docente y su labor: una experiencia de Aprendizaje-Servicio en la universidad y su evaluación. *Contextos Educativos*, 20., 147-164.
- Chiva Bartoll, O. eta Martí Puig, M. (2016). *Métodos pedagógicos activos y glovalizadores: conceptualización y propuestas de aplicación*. Bartzelona: Graó.
- Chubut, R. (2010). *Planificación de la Biblioteca Escolar. Documentos de apoyo*. BERA-Chubut: Ministerio de Educación de Provincia de Chubut.
- Corina Viera, K. (2003). Investigación y construcción del saber en la Nueva Escuela: el papel de la biblioteca escolar. *Scire: Representación y Organización del Conocimiento*, 9 (1), 125-132.
- Coronas Cabrero, M. (2015). Bibliotecas escolares: Currículo y hábitos lectores. S. Sánchez García eta S. Yubero (Koord.), *Las bibliotecas en la formación de letores*, 25-66. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Cremades García, R. eta Jiménez Fernández, C (2015). *La biblioteca escolar a fondo: Del armario al ciberespacio*. Gijón: TREA.
- Dorfsman, M. (2012). La profesión docente en contextos de cambio: el docente global en la sociedad de la información. *RED-DUSC. Revista de Educación a Distancia: Docencia Universitaria en la Sociedad del Conocimiento*, 6.
- Durbán Roca, G. (2006). Aprender a utilizar la información en la biblioteca escolar. *Educación y biblioteca*, 156, 60-62
- Durbán Roca, G. (2009). Tensiones y distensiones. Reflexión en torno a la situación actual de la biblioteca escolar. *Libro abierto: Bibliotecas escolares en la provincia de Málaga: Boletín de información y apoyo*, 35, 6-11.
- Durbán Roca, G. (2010). *La biblioteca escolar hoy: Un recurso estratégico para el centro*. Bartzelona: Graó.

- Durbán Roca, G. eta García Guerrero J. (2008). Contribución de la biblioteca escolar al desarrollo de las competencias lectora e informacional. *Mi biblioteca: la revista del mundo bibliotecario*, 13, 56-65.
- Fernández Vallejo, M. (2016ko abenduaren 11a). Las claves por las que Castilla y León triunfa en el informe PISA. *El Correo*. Hemen eskuragai: www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201612/11/aulas-exito-20161211001249.html Kontsulta [2017-12-27].
- Gezuraga, M. (2017). El Aprendizaje-Servicio y su Contribución a la Función de Extensión Universitaria. Desarrollo en la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 15(1), 5-18.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2016). *PISA 2015. Informe español*. Hemen eskuragai: <https://www.mecd.gob.es/inee/dam/jcr:0e5376e8-b094-41f6-b795-44c9102678b7/educainee51provokk.pdf> Kontsulta [2017-12-27]
- Igarza, R. (2016). Paradigma digital y bibliotecas. Hemen eskuragai: <https://laboratorioemilia.com/web/paradigma-digital-y-bibliotecas/> Kontsulta [2018-06-19]
- Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Martínez Domínguez, B., Martínez Domínguez, I., Alonso Sáez, I, eta Gezuraga Amundarain, M. (2013). El Aprendizaje-Servicio, una oportunidad para avanzar en la innovación educativa dentro de la Universidad del País Vasco. *Tendencias Pedagógicas*, 21, 99-117.
- Miret, I. (2006 maiatza). Bibliotecas escolares: ¿calidad o enfermedad del sistema educativo? *Actos de las II Jornadas sobre Bibliotecas Escolares en Extremadura* jardunaldietan aurkeztua (27-44). Merida: Junta de Extremadura: Hezkuntza Kontseilaritza.
- Miret, I. eta Baró, M. (2016). Bibliotecas escolares a pie de página. Millán, J. D. (koord.) *La lectura en España. Informe 2017*. Madril: Federación de gremios de editores.
- Miret, I., Baró, M., Maña, T. eta Vellosillo, I. (2011). *Bibliotecas escolares ¿entre interrogantes? Herramienta de autoevaluación. Preguntas e indicadores para mejorar la biblioteca*. Madril: Hezkuntza Ministerioa.
- Ochoa Cervantes, A., Pérez Galván, L. M. eta Salinas, J. J. (2018). El aprendizaje-servicio (APS) como práctica expansiva y transformadora. *Revista Iberoamericana de Educación*, 76, 15-34.

- Serna Martinez, M. (2015). *Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak eta irakurtzearen balioa: eskola-liburutegiaren eraginari buruzko azterketa*. Bilbo: EHUren argitalpen saila.
- Serna, M., Rodríguez, A. eta Etxaniz, X. (2017). Biblioteca escolar y hábitos lectores en los escolares de Educación Primaria. *Ocnos*, 16 (1), 18-49.
- Ugalde Binda, N. eta Balbastre Benavent, F. (2013). Investigación cuantitativa e investigación cualitativa: buscando las ventajas de las diferentes metodologías de investigación. *Ciencias económicas*, 31 (2), 179-180.
- Zorrilla Silvestre, L., Capella Peris, C. eta Gil Gómez, J. (2016). Hemen: Chiva Bartoll, O. eta Martí Puig, M. (koord.) *Métodos pedagógicos activos y globalizadores: conceptualización y propuestas de aplicación* (67-83). Barcelona: Graó.

8. ERANSKINAK

8.1. BEHAKETA-FITXA

Espazio fisikoa, ekipamendua eta instalazioak

	BAI	EZ
Espazio fisikoa		
Erabilera eksklusiborako espazioa dauka.		
Jarduera ezberdinak aldi berean egin daitezke.		
Zonalde ezberdinetan banatuta dago (ikasketa, irakurketa, ikus-entzuneoak...)		
Ingurune-egoera (argia, tenperatura) egokiak eta atseginak dira.		
Ikastetxean toki irisgarri batean kokatuta dago.		
Liburutegiko arduradunak bere lanerako espazio propioa dauka.		
Altzariak		
Nahiko altzari dago.		
Egoera onean daude.		
Apalategiak materiala gorde eta erakusteko egokiak dira.		
Aulki eta mahaiak erabiltzaileentzat egokiak dira.		
Ekipamendu teknikoa		
Liburutegiaren gestiorako ordenagailu eksklusibo bat dauka.		
Ordenagailua ekipatuta dago (CD/DVD irakurgailua, inprimatzailea, eskanerra...).		
Katalogoaren eta baliabide elektronikoen kontsultarako ordenagailu bat dago, gutxienez.		
Ordenagailuek sarean funtzionatzen dute.		
Internetarako konexioa dago.		
Telefono linea propioa dauka.		
Kolekzioa		
Kolekzioak mota askotako materialak ditu (bibliografikoa, ikus-entzunezkoak, elektronikoak..)		
Beharrezko erreferentziazko obrak ditu: entziklopediak, hiztegiak, atlasak...		
Kontsultarako obrak eguneratuak (datari eta hizkuntzari dagokionez) dira.		
Adin-tarte eta interes guztientzat nahikoa fikzio obra dago.		

Arlo kurrikular guztietarako obrak daude.		
CD, DVD eta bideo materiala dago.		
Erabiltzaileen beharrak asetzeko nahikoa material dago.		
Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleentzat materialak daude.		
Guztionez irisgarria den katalogoa dauka on-line.		
Hautatutako baliabide elektronikoak (datu-baseak, aldizkari elektronikoak...) daude on-line.		
Irakasleentzat dokumentuak daude (aldizkari profesionalak, legedia, didaktikako eskuliburuak eta gidak...).		
Fondoaren antolamendua		
Geletan ere liburutegia dute.		
Apalategiak erabilera aserako dira.		
Liburuak Sailkapen Hamartar Unibertsalaren (SHU) arabera antolatuta daude.		
Kolekzioaren trataera. Prozesu administratiboak		
Kolekzioak liburutegiaren jabetzaren zigilua dauka.		
Inbentarioa dauka.		
Inbentarioaren liburua dauka.		
Hondatzeagatik, trukeagatik eta galtzeagatik bajak erregistratuta daude.		
Urtero funtsaren garbiketa edo xahutzea egiten da.		
Prozesu teknikoak		
Kolekzioa sailkatuta dago.		
Liburutegiak katalogoa dauka.		
Automatizazioa		
Liburutegia automatizatuta dago.		
ABIES programa erabiltzen du.		
Seinaliztapena		
Liburutegiak sarrerako seinalea dauka.		
Sektoreak seinaleztatuta daude.		
Apalek arloaren araberrako seinaleak dituzte.		

Apaletako seinaleek dokumentuak aurkitzea errazten dute.		
Buzoi propioa dauka.		
Informazio tabloi propioa dauka.		
Bere existentziaren berri emateko ekintzak antolatzen dira (erakusketa tematikoak, berriak...)		
Zerbitzu orokorrak		
Ikasleek liburutegia eskola orduetan erabil dezakete.		
Eskola orduetatik kanpo erabil dezakete.		
Etxerako maileguak egiten dira.		
Geletarako maileguak egiten dira.		
Liburutegien arteko maileguak egiten dira.		
Liburu berriak erakusten dira.		
Internetarako sarbidea.		
Ordenagailuen erabilera lan pertsonalerako.		
Beste batzuk (proiektorea, bideoak...)		
Liburutegiaren antolamendu eta zerbitzuen inguruko gida dago.		
Web-orria dauka.		
Liburutegiaren inguruko informazioa sarri eguneratzen da.		

8.2. ZUZENDARITZA-TALDEARENTZAT GALDETEGIA

1. Liburutegiaren Proiektu formala existitzen da? Eredua, helburuak, estrategiak, ekintzak eta ebaluazioa biltzen dituena.

Bai	Ez
-----	----

2. Liburutegiaren Proiektuaren planifikazio eta ebaluazioan zuzendaritza-taldeak parte hartzen du?

Bai	Ez
-----	----

3. Eskola-liburutegia zuzendaritza-taldearen lehentasunetako bat da?

Bai	Ez
-----	----

4. Eskola-liburutegia ondoko dokumentuetan ageri da?

Hezkuntza Proiektuan.	Bai	Ez
-----------------------	-----	----

Curriculum Proiektuan.	Bai	Ez
Urteko Programazioan.	Bai	Ez
Irakurketa/idazketa Planean.	Bai	Ez
IKTen Planean.	Bai	Ez
Hizkuntza Proiektuan.	Bai	Ez
Besteren batean:	Bai	Ez

5. Zentroko organo ezberdinen bileretan eskola-liburutegiaz hitz egiten da?

Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
----------	----------	----------	---------

6. Ikastetxeak diru kopuru bat aurreikusten du urtero eskola-liburutegiak liburu eta material berria erosteko?

Bai	Ez
-----	----

7. Eskola-liburutegia hezkuntza-berrikuntzarako faktore moduan aurkezten da (familiei, memorietan...)?

Bai	Ez
-----	----

8. Nahikotzat jotzen duzu daukazun liburutegia?

Batere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
-----------	-------	--------	------

9. Zerbait botatzen duzu faltan liburutegian eta bere zerbitzuetan? Zer?

.....

8.3. LIBURUZAINARENTZAT GALDETEGIA

1. Erabiltzaileek (irakasle eta ikasleek, nagusiki) dituzten beharrak ezagutzeko estrategiarik ba al du liburutegiak?

Bai	Ez
-----	----

2. Liburuzain bezala zuzendaritza-taldearekin bilerak egiten dituzu erregulariki?

Bai	Ez
-----	----

3. Liburuzain bezala, irakasleriarekin ziklo eta departamentu bilerak egiten dituzu erregulariki?

Bai

Ez

4. Liburutegiko zerbitzuei dagokienez, zein da zure iritzia?

	Gutxi				Asko
Arlo eta ziklo guztietarako egokia da kolekzioa.	1	2	3	4	5
Genero eta mota anitzeko materiala dago.	1	2	3	4	5
Fondoa erregularoki eguneratzen da, erabiltzaileen beharrei erantzutea helburu izanda.	1	2	3	4	5
Irakurmena sustatzeko ekintzak antolatzen dira.	1	2	3	4	5
Ikasleentzat informazioa erabiltzeko eta baliabide digitalen inguruko formakuntzak antolatzen dira.	1	2	3	4	5
Irakasleentzat informazioa erabiltzeko eta baliabide digitalen inguruko formakuntzak antolatzen dira.	1	2	3	4	5
Geletan egiten den lanari laguntzeko liburutegia erabiltzen da (informazio bilketak, baliabide digitalen erabilera...).					
Beste ekintza batzuk:	1	2	3	4	5

5. Irakasleek egiten duten liburutegiaren erabileraren inguruan:

Irakaslearekin batera ikasleekin egiteko ekintzak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Irakasleek liburutegian lan egiten dute ikasleekin.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Irakasleek liburutegian egiteko ikerketa lanak, diziplinarteko proiektuak, etab. proposatzen dizkiete ikasleei.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Irakasleekin elkarlanean curriculumeko arlo guztiak lantzeko ekintza didaktikoak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Irakasleekin elkarlanean konpetentzia digital eta informazionala lantzeko ekintza didaktikoak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Irakasleekin elkarlanean irakurketa sustatzeko ekintza didaktikoak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Beste ekintza batzuetarako:	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

.....				
-------	--	--	--	--

6. Liburutegiak borondatez lan egiten duen laguntzaile taldea dauka?

Bai	Ez
-----	----

7. Urtero egiten dira eskola-liburutegiaren plangintza eta ebaluazioa?

Bai	Ez
-----	----

8. Eskola-liburutegiari dagokionez, etengabeko formakuntza jasotzen duzu?

Bai	Ez
-----	----

Erantzuna baiezkoa bada, ondoko zein gairen inguruan jasotzen duzu formakuntza?

Irakurketa sustatzeko jarduerak prestatzeko.	Bai	Ez
Alfabetizazio informazionalerako jarduerak prestatzeko.	Bai	Ez
Ikerketa jarduerak antolatzeko eta jarraipena egiteko.	Bai	Ez

9. Eskola-liburutegia ikastetxearen lehentasunetako bat da?

Bai	Ez
-----	----

10. Ikastetxeak diru kopuru bat aurreikusten du urtero eskola-liburutegiak liburu edo material berria erosteko?

Bai	Ez
-----	----

11. Eskola-liburutegia hezkuntza-berrikuntzarako faktore moduan ikusten duzu?

Bai	Ez
-----	----

12. Nahikotzat jotzen duzu daukazu liburutegia?

Batere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
-----------	-------	--------	------

13. Zerbait botatzen duzu faltan liburutegian eta bere zerbitzuetan? Zer?

.....

.....

.....

8.4. IRAKASLEENTZAT GALDETEGIA

Zein mailatan irakasten duzu?

HH4	HH5	LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

1. Eskola-Liburutegiaren Proiektua ezagutzen duzu?

Bai	Ez
-----	----

2. Liburutegiaren Proiektuaren planifikazio eta ebaluazioan parte hartzen duzu?

Bai	Ez
-----	----

3. Liburutegia erabiltzen duzu?

Dokumentaziorako eta material prestaketarako.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Bestelako irakasle-ekintza batzuetarako (azterketak zuzendu, bilerak, elkarrizketak...).	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Erabilera pertsonalerako (nobelak, egungaria edo aldizkariak irakurtzeko, ordenagailuan ibiltzeko...).	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Zuk formakuntzaren bat jasotzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Gelako metodologia eta ekintzetan txertatzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Beste ekintza batzuetarako:	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

4. Ikasleekin egiten duzun liburutegiaren erabileraren inguruan:

Liburuzainarekin batera ikasleekin egiteko ekintzak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburutegian lan egiten duzu ikasleekin.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburutegian egiteko ikerketa lanak, diziplinarako proiektuak, etab. proposatzen dizkiezu ikasleei.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburuzainarekin elkarlanean curriculumeko arlo guztiak lantzeko ekintza didaktikoak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburuzainarekin elkarlanean konpetentzia digital eta informazionala lantzeko ekintza didaktikoak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburuzainarekin elkarlanean irakurketa sustatzeko ekintza didaktikoak antolatzen dituzu.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

5. Ikasleei aurreko galderako proposamen eta ekintza didaktikoak irakasleek liburuzainarekin

elkarlanean egin beharreko lana dela uste duzu?

Bai	Ez
-----	----

6. Nahikotzat jotzen duzu daukazun liburutegia?

Batere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
-----------	-------	--------	------

7. Eskola-liburutegia hezkuntza-berrikuntzarako faktore moduan ikusten duzu?

Bai	Ez
-----	----

8. Zerbait botatzen duzu faltan liburutegian eta bere zerbitzuetan? Zer?

.....

.....

.....

8.5. IKASLEENTZAT GALDETEGIA

Zein mailatan ikasten duzu?

HH4	HH5	LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

1. Zure eskolan liburutegia dagoela badakizu?

Bai	Ez
-----	----

2. Liburutegia erakutsi eta nola erabili erakutsi dizute?

Irakasleak	Bai	Ez
Liburuzainak	Bai	Ez

3. Eskolako liburutegia erabiltzen duzu?

Eskola orduetan	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Eskola orduetatik kanpo	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

4. Liburutegia zure kasara erabiltzen duzunean, ondorengo ekintzetarako erabiltzen duzu?

Testuliburuekin ikasteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Bertako materialak erabili edo kontsultatzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Irakurtzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Bakarkako lanak egiteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Talde-lanak egiteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

Ordenagailuan informazioa biltzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Ordenagailuan lanak egiteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Ordenagailuan jolasteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburutegiak antolatutako ekintzetan parte hartzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Beste ekintza batzuetarako:	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

5. Irakaslearekin zaudenean, gelako lanetarako, eskolako liburutegia erabiltzen duzue?

Liburuak irakurtzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Liburuak hartzeko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Ipuin kontaketak, antzerkiak... egiteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Ipuin kontaketak, antzerkiak... ikusteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Informazioa bilatzeko (liburuetan, ordenagailuan...).	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Informazioa nola bilatzen den ikasteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Ordenagailuak nola erabiltzen diren ikasteko.	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan
Beste ekintza batzuetarako:	Inoiz ez	Gutxitan	Batzutan	Askotan

6. Lanak egiteko eta ikasteko behar duzun informazio eta materiala aurkitzen duzu liburutegian?

Batere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
-----------	-------	--------	------

7. Eskolako liburutegia lagungarria zaizu ikasketetan?

Batere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
-----------	-------	--------	------

8. Eskolako liburutegiarekin pozik zaude?

Batere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
-----------	-------	--------	------

9. Zerbait falta da zure eskolako liburutegian? Zerbait gehiago jarriko zenuke?

.....

8.6. HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT GALDETEGIA

Zein mailatan ikasten duzu?

HH4	HH5	LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

1. Zure eskolan liburutegia dagoela badakizu?
2. Liburutegia erakutsi dizute?
3. Eskolako liburutegia erabiltzen duzu?
4. Zertarako erabiltzeko duzu liburutegia?
5. Eskolako liburutegian gauzak ikasten dituzu?
6. Eskolako liburutegiarekin pozik zaude?
7. Zerbait falta da zure eskolako liburutegian? Zerbait gehiago jarriko zenuke?

8.7. GALDETEGIETAKO ERANTZUNEN BALIOAK

- Bai (1) eta ez (0).
- Maiztasuna adierazteko: batere ez/inoiz ez (0), gutxitan/gutxi (1), batzuetan/nahiko (2) eta askotan/asko (3).
- Balorazioa adierazteko: 1etik 5era bitartean.

8.8. IKERKETAKO DIMENTSIOAK GALDEREI LOTUA

Galdetegiak galdera ireki bana ere bazutenez, kasu horretan, ideia nagusia jasotzen zuen kode batekin prozesatu genituen erantzunak; ideia bateragarriak zirenean kode bera emanez.

Ikerketa-dimentsioak	Galderak
<i>Liburutegiaren existentziaren ezagupena</i>	Ikasleak: G1, G2
<i>Presentzia eskolako txosten, aurrekontu eta bilera garrantzitsuetan</i>	Zuzendaritza-taldea: G1, G2, G3, G4, G5, G6 Liburuzaina: G7, G9, G10 Irakasleak: G2
<i>Elkarlana eta koordinazioa</i>	Zuzendaritza-taldea: G2, G5 Liburuzaina: G2, G3, G5 Irakasleak: G2, G4, G5
<i>Liburuzainaren lana eta liburutegiko zerbitzuak</i>	Liburuzaina: G1, G4, G5, G8
<i>Eskola-liburutegiaren erabilera</i>	Liburuzaina: G5, G6 Irakasleak: G3, G4 Ikasleak: G3, G4, G5
<i>Eskola-liburutegiaren eraginkortasuna</i>	Zuzendaritza-taldea: G7, G8, G9 Liburuzaina: G11, G12, G13 Irakasleak: G6, G7, G8 Ikasleak: G6, G7, G8, G9

8.9. GALDETEGIETAKO ERANTZUNAK



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

Kodea	Maila	G1	G2.1	G2.2	G3		G4.1	G4.2	G4.3	G4.4	G4.5	G4.6	G4.7	G4.8	G4.9	G4.10	MEDIA-G4	G5					MEDIA-G5	G6	G7	G8	G9.1	G9.2		
					G3.1	G3.2												G5.1	G5.2	G5.3	G5.4	G5.5							G5.6	G5.7
IK-111K-31K-41K-5	HH4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2				
	HH4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
GUZTIRA HH4		0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
IK-61K-71K-81K-91K-10	HH5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
	HH5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
GUZTIRA HH5		0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2			
IK-111K-121K-13	LH1	1	0	1	1	1	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0,22222222	3	3	0	3	0	0	0	1,28571429	0	1	2	1	Liburu gehiago
	LH1	1	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	1	3	0	0	0	0,71428571	0	0	0		
	LH1	1	1	1	1	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0,22222222	3	3	0	0	0	0	0	0,85714286	0	1	3	1	Liburu gehiago

Kode a	Mail a	G1	G2	G3.1	G3.2	G3.3	G3.4	G3.5	G3.6	MEDIA-G3	G4.1	G4.2	G4.3	G4.4	G4.5	G4.6	MEDIA-G4	G5	G6	G7	G8.1	G8.2								
40																														
GUZTIRA LH6		1	0,6666 6667	0,7777 7778	1,5	1,7	0,4	1,5	1,6	0,7	0,8	0,7	0,6	1	1,4	1,7777 7778		1,5	1,4	0,4	1,1	1	0,5	0,4	0,5714 2857	0,8696 4286	2,2	2	2,8	0,1 1 2 5
GUZTIRA		0,888 88889	0,5996 732	0,8285 7143	0,96 50 79 37	1,05 27 77 78	0,2027 7778	0,8444 4444	0,56 66 66 67	0,1944 4444	0,2222 2222	0,2861 1111	0,19 72 22 22	0,5833 3333	0,5111 1111	1,2270 5314		1,3333 3333	1,3055 5556	0,4	1,4055 5556	0,16 94 44	0,1416 6667	0,4021 164	0,6853 3399	0,91 66 66 67	1,6107 9365	2,3138 8889	0,1 5 9	
IR-1	HH4	0	0	0	0	1	0	0	0	0,16666667	0	0	0	0	0	0	0	1	2	1										
IR-2	HH4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2	1										
IR-3	HH4	1	0	0	0	1	2	1		0,8	1	1	0	0	0	0	0,33333333	1	2	1	1	Liburuzainaren liberazioa								
IR-4	HH4																		2											
GUZTIRA HH4		33%	0	0	0	0,666 6666 7	0,66666667	0,333 3333 3	0		0,333 3333 3	0,333 3333 3	0	0	0	0	0	1	2	1	1									
IR-5	HH5	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0		2	1										
IR-6	HH5	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0		1	1	1	Liburutegia Hhko eraikinean								
IR-7	HH5	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0					Liburutegia Hhko eraikinean								
IR-8	HH5	1	0	0	1	1	1	1		0,8	0	0	0	0	0	0	0	1		1										
GUZTIRA HH5		100%	0,25	0	0,25	0,25	0,25	0,25	0	0,2	0	0	0	0	0	0	0		1,5	1	1									
GUZTIRA HH		71%	0,142 8571 4	0	0,1428 5714	0,428 5714 3	0,42857143	0,285 7142 9	0	0,25238095	0,142 8571 4	0,142 8571 4	0	0	0	0	0	0,0476190 5	1	1,833 3333 3	1	1								
IR-9	LH1	0	0	3	0	0	2	0		1	0	0	0	0	0	2	0,33333333	1	3	1	0	Erabilera gehiago								
IR-10	LH1	0	0	2	0	0	2	0		0,8	0	0	0	0	0	0	0	0	2	1										
IR-11	LH1	0	0	1	0	0	2	0		0,6	0	0	0	0	0	0	0	0	2	1										
IR-12	LH1																													
GUZTIRA LH1		0%	0	2	0	0	2	0		0,8	0	0	0	0	0	0,666 6666 7	0,11111111	0,333 3333 3	2,333 3333 3	1	0									
IR-13	LH4	1	0		2	0	2	3		1,75	2	0	2	0	0	2	1	0	3	1										
IR-14	LH4	0	0	1	2	0	3	2	0	1,33333333	2	0	2	1	0	2	1,16666666	0	2	1	1	Liburuzainaren liberazioa								
IR-15	LH4	0	0	1	1	0	0	0	0	0,33333333	0	0	0	0	0	0	0	0	2	0	1	IKT baliabide gehiago								
IR-16	LH4	1	0	2	0	0	1	0	2	0,83333333	1	0	1			2	1	0	2	0										
GUZTIRA LH4		50%	0	1,3333 3333	1,25	0	1,5	1,25	0,666 6666 7	1,0625	1,25	0	1,25	0,333 3333 3	0	1,5	0,7916666 7	0	2,25	0,5	1									

IR-17	LH6	0	0	1	2	0	2	1	2	1,33333333	0	0	1	0	1	1	0,5	1	2	1														
IR-18	LH6	0	0	1	2	0	2	1	2	1,33333333	0	0	1	0	0	0	0,16666667	0	2	1	1	Egunerokoan txertatzeko denbora												
IR-19	LH6	1	0	1	2	0	2	1		1,2	1	0	1	0	0	0	0,33333333	0	2	1	0	Erabilera gehiago												
IR-20	LH6	1	0	1	2	0	2	2		1,4	2	2	3	1	0	0	1,33333333	0	2	1	1	Egunerokoan txertatzeko denbora												
GUZTIRA LH6		50%	0	1	2	0	2	1,25	2	1,31666667	0,75	0,5	1,5	0,25	0,25	0,25	0,58333333	0,25	2	1		0,66666667												
GUZTIRA LH		36%	0	1,4	1,18181818	0	1,81818182	0,90909091	1,2	1,08333333	0,72727273	0,18181818	1	0,2	0,1	0,81818182	0,53030303	0,18181818	2,18181818	0,81818182		0,66666667												
GUZTIRA		50%	6%	0,82352941	0,77777778	0,16666667	1,27777778	0,66666667	0,6	0,76018519	0,5	0,16666667	0,61111111	0,11764706	0,05882353	0,5	0,34259259	0,4	2,05882353	88%		0,75												
Ko de a	G1	G2	G3	G4.1	G4.2	G4.3	G4.4	G4.5	G4.6	G4.7	G4.8	MEDIA-G4	G5.1	G5.2	G5.3	G5.4	G5.5	G5.6	G5.7	MEDIA-G5	G6	G7	G8	G8.1	G8.2	G8.3	MEDIA-G8	G9	G10	G11	G12	G13	G13.2	
LIB	1	0	0	4	5	5	4	4	3	2	5	4	1	1	1	2	1	2	3	1,57142857	1	1	1	1	1	1	1	0	0	1	3	1		Liburuzainaren liberazioa
Kodea	G1	G2	G3	G4.1	G4.2	G4.3	G4.4	G4.5	G4.6	G4.7	MEDIA-G4	G5	G6	G7	G8	G9.1	G9.2																	
ZUZ	1	1	1	0	0	1	1	0	0		33%	2	1	1	1	1	Liburuzainaren liberazioa																	